



## Ibon Sarasola:

"Jende askorentzat, gazteentzat batez ere, euskara latinaren tankerakoa da, azterketetan gainditu behar rekoa baina geratu bizitzarako balio ez diena"

Ibon Sarasolak nahiko zeresan eman du *Euskara batuaren ajeak* liburuarekin, baina bertan azaldutakoari buruzko eztabaida sakona faltan somatu du. Sarasolak etengabe salatzen du Ipar Euskal Herriko euskararen eta Hegoaldekoaren arteko etena, eta bigarren batasun baten premia aldarrikatzen du. Bestalde, euskaltzainak dioenez, "gure artean edozein aitzakia ona da erdarara pasatzeko eta erdaraz hitz egiteko"; hortaz, ez da nahikoa euskara ikastea edo euskaraz jakitea: geure hizkuntza erabili egin behar dugu.

10. or.

## IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

5

Komunikaziorako estrategiak. Eman beharreko mezua nolakoa, egitura eta komunikazio estrategiak halakoak.


18

Bulegoko gauzak Hiztegitxo bat, bulegoko gauzak euskaraz nola esan jakiteko.

22

Euroaren sarrera Euroak laster ekarriko dizkigun aldaketak.

Erakunde Autonomiaduna



## Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana


Aurten hamar urte beteko dira EAEko administrazioan hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak arautzeko dekretua abian jarri zenetik. Dekretuaren helburu nagusia herritarrek herri-administrazioarekiko harremanetan dituzten hizkuntza-eskubideak bermatzea izan zen, hau da, euskara zerbitzu-hizkuntza bilakatzea. Orain dela gutxi, ordea, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu da, eta plan horren bitartez neurri batzuk ezarriko dira erabilera sustatzeko eta erabileraren aldeko jarrerak eragiteko. Horri buruz Arantxa Aurrekoetxea Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak adierazi duenez, "langileen partaidetza ezinbestekoa da era honetako plangintzetan".

13. or.

## Euskadiko Kirolaren Legeari jarritako errekurtsoaren ondoren... euskal selekziorik bai?

"Euskal federazioei baino ez dagokie euskal kirol federatua Estatuan eta atzerrian ordezkatzea, zeini bere kirol-motan. Beren kirol selekzioek Estatuko eta nazioarteko kirol ekintza eta lehiaketetan parte hartzea sustatu eta bideratu beharko dute euskal federazioek". Hori da Madrilgo gobernuak errekurritu duen Euskadiko Kirolaren Legearen artikulua. Hori ikusirik, errekurtso horrek aurrera egiteko aukerarik ba ote duen, eta zer nolako eragina izan dezakeen jakin nahi dugu, eta hartara gure eztabaida.

20. or.



ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO  
LABERINTOAN HARRAPATUTA  
ZOMORR



PAPER  
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:  
Joseba Lozano

Diseinu Grafikoa: Gabinorte

Zenbaki honetako lankideak:  
Manu Arrasate, Javi Cillero, Luis Elizondo, Rosa Maria Fernandez, Montserrat Gimeno, Jakes Goikoetxea, Aitor Gorostiza, Enrike Gorrotxategi, IZO, Lourdes Llorens, Joseba Lozano, Luma, Nekane San Miguel, Maite Urkia, Pedro Zuberogitia

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ  
aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ  
aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

PERTSONAIA



## Aitor Mazo, aktorea:

“Madril euskal aktorez josita dago”

**Eskarmentu handiko aktorea da Aitor Mazo bilbotarra, bai antzerkian, bai zinean eta baita telebistan ere. Zinean *Maité*, *Vacas*, *Todos a la carcel*, *La reina anónima*, *Airbag* eta *Cachito* filmeetan parte hartu du, besteak beste. Antzerkian, *Torito bravo* eta *Metele caña* egin ditu, eta antzerki-aktore onenaren saria jaso zuen iaz *Mefisto* antzezlanarekin. Telesail ugaritan parte hartu du telebistan, eta aurkeztu ere, zenbait programa aurkeztu ditu. Aita izan berria da eta gaur egun etxeko lanak egiten ditu.**

**Antzerkigintzan betidanik salatu da baliabiderik eza. Orain interpretazioan bidea urratzea zaila bada, are zailagoa izango zen zu hasi zinen garaian.**

Ni hasi nintzenean, duela 15 bat urte, antzerki independentea azken astinduak ematen ari zen. Ez zegoen ez antzerkirik ez ezer, eta Madrilera joan behar zen ikastera. Urte haietan, kale antzerkia egiten nuen haurrentzako; aurrerago Maskaradan sartu nintzen ordezkapen bat egiteko, eta bertan geratu. Garai hartan ez zegoen klaserik, eta emanaldiz emanaldi egiten genuen karrera, hemendik hara, herriz herri.

**Egoera hobetu al da?**

Egoera aldatu beharra dago, baina ez dugu biderik hori aldatzeko, ez baitago ez azpiegiturarik, ez irakaslerik ezta non entsaiatu ere. Hori da Euskal Herrian somatu dudana hutsunerik handiena, Madril eta Bartzelonaren aldean. Ulertezina da, gaur egun Bilbon antzerki iraunkorrik ez izatea antzerki ona ikusteko, eta ez bakarrik antzerki komertziala, baita ospe handirik ez duten lanak ere.

**Euskarazko antzerkigintzaren etorkizuna are beltzagoa da, ezta?**

Nahiko beltza da bai, baina zirkuitoa badago eta emanaldiak egiten dira, lehen baino gutxiago izan arren. Ezin dugu gauza handirik esan, ze, gaizki doala esaten badugu, beti kexatzen ari garela esaten digute; isiltzen bagara, ez dugu ezer egiten; eta ondo dagoela esaten badugu, gezurretan ari gara.

**Txiki-txikitatik izan duzu harreman zuzena zinearekin eta antzerkiarekin.**

Nire izeba bat Albeniz zinemako txartel saltzailea zen. Gerorago, Albeniz zinema, Udalaren eskutik, Bilboko lehen antzerki iraunkorra bihurtu zen eta izebak bertan jarraitu zuen lanean. Gaztetan pelikula eta antzezlan guztiak ikusten nituen, baita *Emmanuelle* ere. Antzerki asko ikusi dut eta beharbada horregatik sortu zitzaidan afizioa.

**Antzerkigintzan edo zineman zerbait egiteko Madrilera joan behar al da?**

Hemengo telebistako buruzagiekin harremanik ez baduzu eta lanik gabe bazaude, mailetak hartu eta beste nonbaitera joan behar duzu. Madril euskal aktorez josita dago.

**Azkenaldian telesailen moda puri-purian dago telebistetan, bai ETBn bai Espainian. Hori ona al da aktoreentzat?**

Horrek adierazten du hobera egin dugula, jendeak hemengo telesailak gustuko dituela eta hobeago egiten direla. Gero, badakigu asko dagoenean denetarik egoten dela. Argi dago aktoreoi ondo datorkigula bizitzeko. Kontua da ea artistikoki zer eskaintzen duten, zein den telebistaren funtzioa gizartean... Jendeak produktu erraza, zuzena, kalekoa, denek ulertzeko modukoa nahi du. Baina urteak pasa ahala, horrelako hainbeste ikusita, jendea sinpletasunean erortzen da.

**Elena Iruretak aipatu izan du Madrilen konturatu direla Euskal Herrian oso ondo lan egiten duen jendea dagoela.**


Hemengo agintariak dira horretaz konturatzen ez direnak, beti irizpide ekonomikoei begira baitaude. Kanpoan, berriz, jendeak estimatu egiten ditugure antzezlanak.

**Kontrastea itzela da. Alde batetik, azpiegitura falta salatzen duzue; bestetik, Guggenheim egin dute Bilbon.**

Guggenheim ondo dago, baina euskal antzerkiarentzat leku bat behar da, bertako antzerki taldeentzat, gauzak egiteko, eskola on bat eratzeko, programazio bat osatzeko eta hemengo jendeak euskal antzerkia dastatzeko. Bertako jendeak euskal teatroa kontsumitu behar du.

Jakes Goikoetxea  
Kazetaria

Legeko Gordailua: BI-1141-93. Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea  
Wellingtongo dukea 2. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 18 76 00. Faxa: 945 18 76 03. / <http://www.ivap.org>



## Omenaldia... inkomunikazioari

Euskal Herriko hiri bat. Bariku eguerdia. Literatur lehiaketa baten sari-banatzea. Areto txukun eta apainean laurogei bat lagun pintxo-pintxo beintizinko baino dotoreago, horietatik dozena inguru euskaldunak, erdiak baino gehiago idazleak, telebista, irriatiak eta kazetariak, sarituekin batera agintariak noiz iritsiko zain ekitaldiari hasiera emateko. Ia ordu erdiko atzerape-na. Bero sargoria. Zigarroak bata bestearen atzetik. Ke eta izer-di usaina nagusi.

Halako batean sartu dira mandamaxak bata bestearen atzetik txistuaren eta danbolinaren soinupean. Tranpaldot gainera igo, irribarre egin eta kunplimenduzko diosalak. Atera du papertxo bat agintari nagusiak euskaraz berba batzuk esan ahal izateko. Txukun xamar aritu da. Esplikatu digu euskal literaturak bizi duen une xamurra eta gozoa, neurri batean han bildutako idazleei eta, kontixu, mundu zabal honetan zeharo ezagunak diren beste puntako batzuei esker. Entzule euskaldunek paso, erdaldunek ezin ulertu noski, halan da ze paso hauek ere.

Denbora alferrik galdu barik, agudo ekin dio aurretiaz esandako berberari, baina erdaraz, euskaldunok ere entenitzeko moduan. Ostean, txalo zaparrada eta adituen arteko komentarioak "el uskera ciertamente, como muy bien acaba de comentar, está viendo unos momentos dulces literariamente hablando".

Ondoren, irabazleen aurkezpena, sari-banaketa, argazkia eta ohiko txaloak.

Segidan nobedadea. Halako Artisten Elkarteko norbaitek hiri horrek eman duen euskal poetarik emankorrenaren poema batzuk deklamatu dituela. Azaldu da aretoan, eta gitarra jotzen ari den beste lagun bat lagun duela hor hasi zaigu euskaraz hitz

erdirik jakin barik "nik eta nik diodana" deklamatzeko. Inork ezin antzeman, baina, zer dioen. Arte-gizonak artekariak bakarrik falta ditu ea zein hizkuntzatan ari den apustuak egiteko. "Mil colorau", eta batere gorritu ez. Artea inondik ere.

Honen atzetik andrazko bat atera da beste hiru poema deklamatzeko erdaraz. Erdaldunek ulertu egin diote. Euskaldunok ulertu eta eskertu.

Gero berriro gure artista, prestu euskal fonologiari azkenaldian eman dioten astindurik latzena ere txiki uzteko. Oraingoan "dixaren bitartez" eta geroxeago "arbuioaren bitartez". Hori dio behinpehin sarreran banatu diguten paperak, ze esan duenagatik biak hala biak ere dexenteko arbuioa. "Besarkada eder batez orain juntatu gara; horregatik igan nintzen zeruetara"... Han bildutako euskaldunok buru makur, batzuk amorratuta, beste batzuk barregurari ezin eutsirik, nire aldameneko burusoil bizardun potoloa (erdaldun petoa) serio-serio, ezpain-muturtxoak luze-luze, bekokia gazi eta buruari gora eta behera eraginez extasiatuta. Broma ederra esango banio suahilieraz ari dela aurrez aurre daukan artista!... "eztute ezagutu neronen mendekantza" zioen poetak, eta horrekin amaitu du guztion bakerako.

Txaloak berriro, luncha, zorionak elkarri, musikalitatearen lilararen aipamenak... Nik neuk behintzat arestikoaren ostean ulertu dut euskaldunok holakoetan sarritan zergatik egon ohi garen "arteak hartu ezinik". Datorren urtean hobeto, segurua.

Manu Ormazabal

## JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

✉ interinez@mindless.com



Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi beharko dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahaliko du sail honetan bertan.

# Komunikaziorako estrategiak

Gutun batean informazioa era askotara antola dezakegu, zabaldu nahi dugun mezuaren arabera. Egia da idazleak zenbat, hainbat estrategia erabil daitezkeela; baina egiagorik ezin izan, administrazioan, gehiegitan, gauzak logikaren aurka egiten ditugula. Hala, berri ona eman nahi dugunean, amaierarako utzi eta irakurlea gogaitu egiten dugu sarrera luze eta aspergarrie-

kin; berria txarra bada, hasieran idazten dugu, irakurleen inolako errukirik gabe; eta zer edo zer saldu nahi dugunean... tira, hobe erosten jarraitzea.

Artikulutxo honetan komunikaziorako estrategia batzuk bildu ditugu. Badakigu eztabaidagarriak direla; horixe, gure asmoa!

## 1. BAEZKO MEZUAK

*Mezua:* irakurleari gustatu egingo zaio.

*Helburua:* informazioa ematea.

*Egoerak:*

- Dirulaguntzak eman.
- Sariak banatu.
- Gonbitak onartu.
- Baietz erantzun.
- Zoriondu.
- Eskerrak eman.

*Egitura:*

1. **Informazio nagusia.**
2. Gorabeherak, zehaztasunak.
3. Amaiera atsegina, zorionak.

*Gomendioak:* baztertu paternalismoa eta eutsi tonu egokiari.

## 2. EZEZKO MEZUAK

*Mezua:* irakurleari ez zaio gustatuko.

*Helburua:* informazioa ulertarazi eta onartaraztea.

*Egoerak:*

- Dirulaguntzarik ez eman.
- Aitzakiak jarri.
- Ezetz erantzun.
- Arau-haustek jakinarazi.

*Egitura:*

1. Gaiari heldu.
2. Honako hauek adierazi:
  - Gorabeherak, zehaztasunak.
  - Justifikazioak.
  - Argudioak.
3. **Informazio nagusia.**
4. Amaiera positiboa.

*Gomendioak:* saihestu kritikak, txantxak, ezkutuko gaitzezenak eta liskarrak. Tonu formala eta egokia.

## 3. KONBENTZITZEKOAK

*Mezua:* interesgarriak izan daitezkeen informazioak. Irakurleak ez ditu espero.

*Helburua:* konbentzitzea, interesa piztea eta ekintzetara bultzatzea.

*Egoerak:*

- Eskaerak.
- Zerbait aurkeztu.
- Gonbitak.
- Zerbitzuak eskaini.

*Egitura:*

1. Sarrera ("amu gisa").
2. **Informazio nagusia:**
  - Abantailak.
  - Balioa.
  - Argudioak.
3. Irakurlea ekintzetara bultzatu.

*Gomendioak:* irakurlearen ikuspuntua. Informazioa mugatu eta zehaztu.

### 1 BAEZKOAK

Andre hori:

Idazki honen bidez jakinarazten dizugu onartu zaitugula HAEEK antolatzen duen *Argiro* ikastaroan parte hartzeko. (**Informazio nagusia**)

Bidenabar, ikastaroaren toki-egunak gogoratu nahi dizkizugu:

Tokia: Arrietako udal liburutegia

Egunak: 1999-01-11/1999-01-15 (biak barne)

Orduak: 08:30/13:30 (**Zehaztasunak**)

Ikastaroa probetxuzkoa eta baliagarria izatea espero dugu. (**Amaiera atsegina**)

Besterik gabe, agur.

### 2 EZEZKOAK

Andre hori:

HAEEK antolatzen duen *Argiro* ikastaroa dela-eta, arreta handiz irakurri dugu 1997ko azaroaren 6an bidali zenigun eskabidea. (**Gaiaren aurkezpena**)

Eskabide horretan 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatu duzula adierazten diguzu. Nolanahi ere, ikastaroan parte hartzeko ezinbesteko baldintza da euskara-maila altua izatea, izan ere, bestela, nekez atera dakioko probetxu osoa bertan ikasitakoari. (**Gorabeherak, justifikazioak, argudioak**)

Horrenbestez, eta zure interesa kontuan hartzen badugu ere, ezin zaitugu onartu ikastarorako. (**Informazio nagusia**)

Edozein kasutan ere, jakin ezazu eskatutako euskara-maila hori lortzen duzunean lehenetsuna izango duzula gure ikastaroan parte hartzeko. (**Amaiera positiboa**)

Besterik gabe, agur.

### 3 KONBENTZITZEKOAK

Andre hori:

Seguru gaude behin baino gehiagotan etsi-etsi eginda egon zarela, horrenbeste urte euskara ikasten eman ondoren, idazki bat sortu ezinik ibili zarela. (**Sarrera, "amua"**)

Ez larritu, HAEEK irtenbidea du-eta: urtariletik aurrera *Argiro* ikastaroa egiteko aukera izango duzu. Bertan, administrazioko idazkiak euskara egokian nola sortu irakatsiko dizugu, hori guztia, adibide ugari eta ariketa osagarri. (**Informazio nagusia**)

Ez galdu aukera hori. Irakur ezazu honekin batera doakizun argibide-orria, eta bidali eskabidea 1997ko azaroaren 13 baino lehenago. Azkar ibili, ikasle-kopurua mugatua baita. (**Irakurlea ekintzetara bultzatu**)

Oh.: goiko eskema egiteko, honetan oinarritu gara: Daniel Cassany, *Materiales de comunicación empresarial*.

# Berriz ere, euskara dela-eta...

Euskarak Justizia administrazioan beste zenbait eremu edo alorretan aurkitu ez dituen traba batzuekin egin du topo, dagokion ofizialtasun maila behar bezala garatzeko. Artikulu honetan Nekane San Miguel epaileak proposamen ausarta egiten digu, ezarritako arauak beren eginkizuna benetan bete dezaten, eta euskara, zenbait inertzia eta planteamendu gaindituz, normalizaziora sendo abia dadin.

Aldizkari honetan gai berari buruz galdera batzuk erantzun nituen orain urte t'erdi inguru. Ordutik hona giroa aldatu dela esan daiteke, atera duen zalaparta dela-eta besterik ez bada: aldarrikapenak, isunak, irainak, proposamenak... denetarik azaldu da hedabideetan, eta horregatik edo, lerro hauek idazteko proposamena jaso nuenean, "arrazionaltasun ttantaren bat" agertzeko edo, ahalegina egiteko esan zidaten.

Mintzaira ikutzen denean arrazionaltasunez jokatzera zaila dela egunero frogatzen den zerbait dugu. Arrazoiak? Hamaika, eta Zuzenbidearen tresnaz baino beste alor, ikasketa edo ikerketa eremuetan aztertu beharrekoak ote diren... Ez da nork bere barnea atera eta adierazteko moduaren erakuslea delako bakarrik (horrek suposatzen duen ñabardura eta guzti); inguruko hizkuntza, arrotz egiten denean, horrek eskatzen duen arreta ere hor da, eta arreta horrek dakarren nekea, eta neke horrek aldi berean gai eta hitz guztien adierazpenaz bateratsu jabetzeko ezina suposatzen diguna ere, hor dago... joko kanpo sentiarazi arte eta abar luze eta zabal bat egiteraino.

Guzti horren ondoan, eta Justizia alorreko funtzionarioei dagokienez (segurutik beste funtzionarioei bezalatsu) beldurra ere hor da: hainbeste kostata lanpostura (edo botere postura) iritsi, eta bere garaian eskatu ez zen baldintza dela medio, lan hori edo leku

hori galtzekoarena, alegia... edo hizkuntza "hori" dakielako, ia-ia besterik ez, "Nik" baino jakinduria gutxiagoko norbait "Ni" baino egoera hobean egotekoa... Arrazoi politiko zehatzak ahaztu gabe, noski: Espainian derrigorrezko hizkuntza bakarria espainola da, eta "Nik" ez dut beste hizkuntzarik jakiteko inolako obligaziorik.

Ez ote garaia  
legeen aldaketa  
sakon bat  
planteatzeko?

Hala jarraituz euskara ez ikastearen justifikazio modu asko azal daitezke, eta legean oinarriturik gainera, baina... ez ote da garaia euskaldunon eskubidearen bermea nola bideratu pentsatzen hasteko, behingoz?

Normalizazio Legearen aurkako helegitearen ondoren emaniko epaiak, Auzitegi Konstituzionalaren 82/1986ak, hauxe dio: Konstituzioak ez duela hizkuntza ofiziala zer den definitzen, baina horri buruz emandako arauen arabera, hizkuntzak kategoria hori duenean (ofiziala) harreman bide normala omen da. Eta normala diogunean, harreman guztiak inolako arazorik gabe aurrera eramateko TRESNA beharko duela, uste dut, gutxiengo edo gehiengo batek hitz eginda... bestela kalifikazio hori baztertu behar da... eta praktikan hala da, dagoen legediak ez baitu normalitate hori bermatzen.

Horren ondoren, arauen interpretazioetan galduz goaz, beste hau bazterturik: gizarte jakin batek zerbait babestu behar duela pentsatzen duenean, sistema mota desberdinen bitartez bideratzen du babes hori, eta maiz legediaren bidez, balore hori babesteko derrigorrezko bideak indarrean jarriz. Euskara hizkuntza ofiziala baldin bada, edozein zerbitzu publiko mota (edo eta botere publiko) emateko lanean aritzen garen guztiok jakin beharko genuke, gaztelera dakigun bezalaxe... eta borondateak norainoko emaitza ekarri duen ikusita, ez ote garaia legeen aldaketa sakon bat planteatzeko, legediaren interpretazio behartuetara gizakia moldatu beharrean, arauak bere eginkizuna bete eta gizakiaren beharrezko zerbitzuan jarriz?... Dударik gabe, epeak, baldintza... baina botere banaketa aldarrikatzen duen sistema honetan, bakoitzak berearen eginbehar eta erantzukizuna hartu beharko du, aldaketa mota guztiak aurrera eramanez, bestela... ez noa esatera gureak egin duela (agian badaezpada ere) baina eztabaida hauetan galduz jarraituko dugu.

Horren ondoren, arauen interpretazioetan galduz goaz, beste hau bazterturik: gizarte jakin batek zerbait babestu behar duela pentsatzen duenean, sistema mota desberdinen bitartez bideratzen du babes hori, eta maiz legediaren bidez, balore hori babesteko derrigorrezko bideak indarrean jarriz. Euskara hizkuntza ofiziala baldin bada, edozein zerbitzu publiko mota (edo eta botere publiko) emateko lanean aritzen garen guztiok jakin beharko genuke, gaztelera dakigun bezalaxe... eta borondateak norainoko emaitza ekarri duen ikusita, ez ote garaia legeen aldaketa sakon bat planteatzeko, legediaren interpretazio behartuetara gizakia moldatu beharrean, arauak bere eginkizuna bete eta gizakiaren beharrezko zerbitzuan jarriz?... Dударik gabe, epeak, baldintza... baina botere banaketa aldarrikatzen duen sistema honetan, bakoitzak berearen eginbehar eta erantzukizuna hartu beharko du, aldaketa mota guztiak aurrera eramanez, bestela... ez noa esatera gureak egin duela (agian badaezpada ere) baina eztabaida hauetan galduz jarraituko dugu.



Nekane San Miguel  
Epailea

# Gurari biziena

Karlosek gelako pertsiana goratu eta leihoa ireki zuen, nagia artean itsatsita. Urriko goiz argia zen, hotz samarra tenore hartan baina eguerdi gozoa iragartzen zuena, bere lanerako egokia euri egunak ez bezala, eta hargatik nahiko gustura irten zen etxetik.

Ez ziren eguraldiarenak izaten aurreko lanbidean estutzen zuten arrangurak. Lau urtez irakasle lanean aritu zen karrera bukatuz geroztik, harik eta institutuetatik aldentzeko nahia ase beharra heldu eta zirt-zart egin zuen arte. Airean emandako urrats haren ondoren langabezia ikusi zuen bere burua bat-batean, eta aurreantzean zer lani lotuko zitzaion ez bazekien ere, ez zen batere dautzen, lasai zegoen.

Hilabeteren bat edo joan zen horrela, eta orduan jakin zuen bere lagun Iñakiren anaiak enpresa txiki bat sortzeko asmoa zuela, hiri barnean presako gutunak eta pakete txikiak bizikletaz jaso eta garraiatzeko. Bi aldiz pentsatu gabe harengana jo eta horrelaxe hasi zen pedalei eragiten.

Ogibide berrian urte erdi zuela, urriko goizean, Diputazioko langile bati azal urdin argiko gutuna eramatea egokitu zitzaion. Bizikleta sarreratik hurbil lotu eta atari zabal batean sartu zen detektagailuaren hesirik topatu gabe, ez baitzen hura eraikin nagusia. Emakume dotore jantzi batek, eskaileretan behera heldu zenak, platerak bezalako begiak jarri zituen bere txirrindulari tankerari begira, baina ordurako hartara ohituta zegoenez asaldatu gabe segitu zuen, atean *Itzulpen Atala* zioen bulego aurkitu arte. Gela handi samar bat zen, eta segundu labur batzuek hari so egotea aski izan zuen inbidia zimiko nimiño bat egiteko ordenagailuaren aurrean lanean ari zirenak ikustean. "Itzultzaileak!", pentsatu zuen, inork ezustean estalkiren bat kendu balu bezala, baina berehala Amaia Lizoainez galdetu zion gizonezko bizardun bati, eta hark beste neska batekin solasean ari zen neska beltzaran bat seinalatu zion. Harengana hurbiltzen ari zela bien irriño ezin gordeaz oharatu zen, irriñoaz eta bere prakak motz urdinetara bideratzen ziren begiradez, beste askotan bezala.

Gutuna eman eta handik irtendakoan pentsamendu bat hasi zitzaion jiraka: "neska hori ni baino gazteagoa izango da eta itzultzaile lanean dagoeneko!". Ñir-ñir egiten zion etengabe bonbilla hondatu moduko batek. Ordurarte lanbide haren berri handirik izan ez eta lika-lika izan zuen goiz guztian.

Bi egunen buruan beste gutun bat eraman behar izan zion neska berari, eta beste bi aldiz ere bai, kolore ezberdineko azaletan sartuta beti. Neskaren aurpegian lehenengo egunean azaldutako harridura muzin geroz eta ilunagoa bihurtu zen pixkanaka, eta are beltzagoa laugarren aldiz agertu zenean. Egun hartan pasilotan topatu zuen kanpora zihoala, eta itzulpen lanari buruzko galdera batzuk egin nahi bazizkion ere, egin gabe utzi zituen haren aurpegian amorrazioa islatzen zela iruditu baitzitzaion.



Hura izan zen bulego hartarako azken mandatua, eta kexu zebilen lanbide haren gutzia geroz eta setatiago nabari zuelako, baina handik aste pare batera neska itzultzailea Karlosengana inguratu zen larunbat goizaldean taberana batean zeudela. Hizketan hasi ziren, musika ozenak behartuta elkarrengana hurreraturik. Horrela jakin zuen mutil ohiaren gutunak eramaten zizkiola bulegora. Ezagutu zuenean haren gauza berezietarako zaletasunak liluratu omen zuen, baina berari ere berezia izatea eskatzen zionez behin eta berriz, nekatu egin omen zen. Neska arrunta izan nahi zuela esan eta harremana etetea erabaki zuenean, hark hitz gozoko dei eta gutunei ekin eta hartan jarraitzen omen zuen artean ere, neska bereziago bat bilatu beharraz konbentzitzen hasia zela uste zuen arren.

Karlosek, irribarretsu, topa egin zuen bere edalontziarekin. Neskari ere alaitu egin zitzaion aurpegia. Orduan, bere setak kitzikaturik, itzultzaile izatea zaila al zen galdegin zion. Behin-behineko langilea zela eta zazpi hilabete besterik ez zeramala esan zion hark, baina nahi izanez gero lagunduko ziola. Are irribarre handiagoa egin zuen Karlosek. Ordurako bazituen garagardo batzuk edanak eta gozotasun izugarria somatzen hasi zen barrenean. Aztoratuta zegoen. Itzultzaile lanean irudikatzen zuen bere burua, eta irudian neska beltzaran hura ere agertzen zitzaiola oharturik filme bateko protagonista sentitu zen. *Bizikletaz ahaztu zen itzultzailea*, bururatu zitzaion oharkabean, nahiz eta berehalaxe ideia aldaturik *Itzultzailearen begi gozoak* hobetsi zuen, berari beha zegoen neskak beste garagardo baterako baietza eman zionean. "Horixe onena!" aditu zuen bere barrualde harrotuan, eta hari oratu zion tinko, gurari biziena huraxe, goizak emeki-emeki biharamunaren argiak piztu zituen arte bederen.

Neska hori ni baino gazteagoa izango da eta itzultzaile lanean dagoeneko!

Maite Urkia  
Idazlea



Mundua on line

### Euskarazko ortografia zuzentzailea

IXA taldeak garatutako tresna honek euskaraz idatzitako testuak egiaztatzen ditu; hau da, euskal ortografiarekin eta morfologiarekin bat ez datozen hitzak baztertzen ditu, eta, ahal duenean, proposamenak egiten dizkigu okerreko hitzak ordezkatzeko. Tresna honek hitzak banan-banan aztertzen dituenez, ez du akats sintaktikorik atzematen. Hori guztia eta tresna honetan oinarritutako XUXEN zuzentzailearen berri helbide honetan dago:

<http://ixa.si.ehu.es>

### EUSKALTERM Terminologi Datu Bankua

Euskalterm UZEIko Terminologi Datu Bankua da, eta hainbat eratako informazioak ditu, besteak beste: hiztegien datu-baseak (fitxa terminologikoen hiztegia, kontsulten fitxategia, kanpoko ekarpenen hiztegia, izen propioen hiztegia, barneko hustuketan fitxategiak, ...), itzulpenen datu-base dokumentala eta arauen datu-basea (euskararen normalizazioarako Euskaltzaindiak emandako arauak, eguneroko zalantzak konpontzeko UZEIk hartu dituen erabakiak eta abar).

<http://www.uzei.com>

### Europari buruzko informazioarako euskal sarea (REVIE)

Sare honen helburua hauxe da: Euskadiko Autonomi Erkidegoan dauden Europako informazioari buruzko baliabide guztiak optimizatzea, informazio hori herritarrei eta erakunde publiko zein pribatuei azkar eta osoki emateko, eta sarea osatzen duten zentru horien koordinazio hobea lortzeko. Europako erkidegoekin zerikusia duten gai guztiei buruzko informazioa, aholkularitza eta dibulgazioa dira REVIEren lan-arloak. Sare honen partaideak, beste batzuen artean, Eusko Jaurlaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak eta EUDEL dira.

<http://www.revie.org>

Luis Elizondo  
luis-elizondo@ivap.es

### Euskarazko tituluaren homologazioa

Eusko Jaurlaritzak 1998ko urriaren 6an onartutako dekretuaren arabera, hemendik aurrera hiru titulu hauek elkarren baliokide izango dira: EGA, irakaskuntzako 2. hizkuntza eskakizuna eta irakaskuntzatik kanpoko 3. hizkuntza eskakizuna. Era berean, irakasleen 1. hizkuntza eskakizunaren baliokidea EAeko hizkuntza eskola ofizialen euskarazko 4. ikastaroaren ziurtagiria izango da.

### Notarietako agiriak euskaraz, erre - kargurik gabe

Erregistro eta Notarietako Zuzendaritza Nagusiak hartu duen ebazpenak dioenez, notarietan egin beharreko eskriturak euskaraz egin ahal izango dira, eta ezingo da inolako errekarurik jarri itzulpenagatik edo euskaraz egiteagatik.

### UEMAren eta Kutzaren arteko harre - manak, euskaraz

UEMAk eta Kutzak urrian sinatutako akordioari esker, erakunde bien arteko idatzizko nahiz ahozko harremanak euskaraz izango dira. Akordioak hiru urteko iraupena izango du, eta denbora hori igarota, urtero-urtero berriztatuko da. Dударik gabe, akordioa garrantzitsua izango da hizkuntzaren normalkuntzari begira, izan ere, bultzada handia emango dio erabilpenari ekonomia-erlanoan.

### EAeko biztanleen erdiak baino gehiagok euskaraz zerbait dakite

Eustaten datuei erreparatuta, euskaraz zerbait dakiten biztanleen kopurua ezer ez dakitenena baino handiagoa da lehendabiziko aldiz. Datu horiek jakitera ematen dutenez, 1996an euskaldunen kopurua %30,9 zen, ia euskaldunena %19,7, eta erdaldunena %49,4. Aipatu behar da igoerarik nabarmenena Araban izan dela; bertan, 1981ean euskaldunen kopurua %3,9 zen, eta 1996an, berriaz, 14,7. Azpimarratzekoa da, bestalde, 1991tik 1996ra bitartean euskaldun berrien artean hirutik bi 1980az geroztik jaiok zirela. Horrek argi eta garbi erakusten du irakaskuntzak izan duen eragina eta garrantzia euskalduntze prozesuan.



# Edurne

Aleluia, Aleluiaren lehen ahapaldiak agurtu zuen Biteri Pentium II+ berria piztutakoan. Duela hilabete ekarri zioten bulegora, administrazioak agindutako berritze planari esker. Interfaz berria omen zeukan, eta Biteriren ahotsa ezagutzeaz gainera, programatuta zegoen gizonezko zein emakumezkoaren ahotsaz erantzuteko, erabiltzailearen gogara. Berehala, emakumezko hitz batzuk belarriratu zitzaizkion Biteriri:

–Egun on, Biteri jauna.

–Kaixo Edurne. Formalitate gutxi nirekin, badakizu. “Kaixo Joseba” esateko programatu dizut erantzuteko formula gisa.

–Kaixo, Biteri jauna.

–Joseba, Joseba deitzeko esan dizut, joder.

–Kaixo, Joseba.

–Hori hobeto dago. Erakutsi agenda.

–Hona hemen gaurko lana. Lehenbailehen BEZ/17-97 dokumentua berrikusi. 10.30etan telefonoz hots egin andreari. Hiru karta eredu prestatuta dauzkat trafikora bidaltzeko, autoa Arriaga ondoan uzteagatik ezarri dizuten isuna dela-eta. 11.30etan, kiniela bota. 13 gradu ditugu Gran Vían eta eguraldia goibel samarra. Ez da espero aldaketa handirik bihar arte. Athleticcek bi eta huts galdu zuen atzo. Ez duzu deirik ez faxik jaso azken hamar orduetan. Ez ahaztu fitxa betetzeaz interfaz berri honi buruzko iritzia emateko. Ondo ibili eta lan handia egin.

–Lana, lana, besterik ez duzu gogoan. Goazen Audiren webgunera.

–Ezin dut zure agindua bete. Beteta daukazu Interneteko ordu kopurua.

–Joder! –oihukatu zuen Biterik, saguaren kableari tira eginez. –Oso gau gogorra izan dut eta ez nabil txantxetarako. Atera ezazu karta-jokoa.

–Ezin dut zure agindua bete.

–Nik erakutsiko dizut aginduak betetzen –esan zuen Biterik tekla samalda joaz piano-forte izugarri batez. –Ez izan mainatia, Edurne, eta erakutsi *Penthouse* berria.

–Erabilera hau ez da legezkoa.

–Eta zer da legezkoa, popatik hartzea? Ez izorratu, neska, eta sar zaitez Audiren webgunean. Bestela, itzali egingo zaitut.

–Ezin dut zure agindua bete. Lanean ari naiz.

Alboko inprimagailutik fax bat ateratzen hasi zen. Biterik inprimakia hartu zuen: “Hona hemen zure profil psikologikoa: oso gizon mizkina, apetatsua eta suminkorra zara. Aukeran, ahobero samarra, baina inseguritate itzela gordetzen duzu barruan. Kontuz ibili, edo bestela sexu ezintasunen bat izateko arriskua duzu.” –Ez dauka graziazirik, Edurne. Amaitu programa –agindu zion haserre Biterik.

–Ezin dut zure agindua bete. Mila kopia egiten ari naiz posta elektronikoz bulego guztietara bidaltzeko.

Biterik etenari gorriari eragin zion ordenadorea itzaltzeko. Une batez, itxaroten egon eta berriro piztu zuen.

–Egun on, Edurne. Berriz hasiko gara. Erakutsi agenda.

–Kaixo, Joseba. Hona hemen gaurko lanak: 10etan BBKko kreditua kantzelatu, helbideratze kontuak ezabatu eta kreditu txarte-

lak desaktibatu. 11.30etan BBVko akzioak saldu eta dirua Hegoamerikako GKE bati eman. Ordu bietan *El Correo*ri eskela bat enkargatu faxen bidez, aitagarrebaren izena hildakotzat emanda. 4etan Escolapiosen zuzendariari umea apaizen kolegiotik atera nahi duzula jakinarazi, atea zarela-eta. 15 gradu ditugu Gran Vían eta eguraldia goibel samarra. Ondo ibili eta lan handia egin.

–Ezabatu aginduak, berehala!

–Ezin dut zure agindua bete, Joseba. Kreditu txartela eskaneatzen ari naiz.

Berriz ere, Biterik etenari gorriari eragin zion, baina oraingoan ez zen ezer gertatu.

–Itzali zaitez, madarikatua!

–Ezin dut zure agindua bete, Joseba. Eskela idazten ari naiz.

–Mesedez, mesedez, Edurne. Gaizki portatu naiz zurekin, barkatu. Baina ez segi aurrera...

–Ezin dut zure agindua bete, Joseba.

Biteri belauniko jarri zen, esku batez teklatura laztanduz.

–Nahi duzuna egingo dut, nahi duzuna.

–Ezin dut zure agindua bete, Joseba.



Orduan, bi langile sartu ziren Biteriren bulegoan, gauzak garraiatzeko gurditxo bat garraiatuz.

–Oraindik ere ez duzu fitxa bete? –esan zion batek Biteriri. Bestea lanean hasi zen ordenadorearen kableak askatuz.

–Ez ukitu Edurne! –oihukatu zuen Biterik langilearen hankari heldu nahian.

–Zoratuta zaude ala? –teknikariak nekez eutsi zion Biteriri. Beste langileak ordenadorea deskonektatu eta gurditxoan ezarri zuen. –Hogeita hamar egunak igaro dira, eta atzera eraman behar dugu. Goazen hemendik, burutik eginda dago –esan zion gurditxo bultzatzen ari zen langileari eta pasabidera irten ziren.

–Barkatu Edurne! Nik ez nuen nahi... –esan zuen etsituta Biterik, gurditxo eta langileak pasabidean barrena desagertzen ari zirela. –Barkatu, Edurne!

Aldi batez, Biteri lurrean eserita geratu zen, zotinka. Ondoren, aulkian eseri eta karpetak irekitzen hasi zen, agiriari mekanikoki aztertuz. Orduan, telefonoak hots egin zuen.

–Joseba Biteri, BEZeko arduraduna, nor da?

–Kaixo Joseba, Edurne naiz. Ordu erdi bat egon naiz zure deia- ren zain. Ez kezkatu atzokoagatik, edonori gertatzen zaio... Aizu, Unibertsitatean nago eta ez dut astirik hitz egiteko. Orain klase bat eman behar dut eta gero Audia garagera eraman. Ez ahaztu umea kolegiotik jaso eta merienda prestatzea. Musu bat. Agur. –Agur, agur Edurne.

Javi Cillero Goiriastuena

Idazlea



# Ibon Sarasola:

“Nik neuk buletinak gazteleraz irakurtzen ditut badaezpada ere”

Hamaika urtez Bartzelonako Unibertsitatean euskal filologia irakatsi ondoren, Ibon Sarasola euskaltzainak Katalunia utzi eta EHUn hasiko da lanean urtariletik aurrera, bertako Euskara Institutuan. Bartzelona semeengatik utzi du batez ere, “oso zaila baita seme euskaldunak izatea Bartzelonan”; baina baita erronka berriei aurre egiteko ere. Berez, klaserik eman behar ez duen arren, lehen mailako ikasleei irakastea gustatuko litzaioke. Sarasolak azkar eta ozen hitz egiten du, arrapaladan askotan, gauzak argi eta garbi dituenaren itxuran agertuz.

Zure liburu eta artikuluetan askotan aipatzen duzu Ipar Euskal Herriko euskararen eta Hegoaldekoaren arteko etena. Arriskua dagoela euskara *chicano*-aren tankerako zerbait bihurtzeko, alegia, gazteleraz jakin gabe ezingo dela euskara ulertu.

Bi *chicano* moduko, autonomiarik gabeko bi nahaste, bat frantsesaren gainean eratua eta bestea espainolaren gainean. Hegoaldean, espainola ondo jakin gabe, espainol mota oso txar bat ondo jakin gabe, ez dago zenbaiten euskara ulertzetik. Arazo larriak daude eta etena areagotzen ari da.

Zein da irtenbidea?

Ez du irtenbide erraza. Lehenengo pausoak arazo latza dagoela jabetzea izan behar du, sensibilizatzea, eta jendeak horren kontzientziarik ez du. Gero, Iparraldeko eta Hegoaldeko jendea bildu eta erdibide bat aurkitzea izango litzateke hurrengo urratsa. Ditugun indar apurrek banatuta jarraitzen baldin badute, euskara galdu egingo da.

## Zirika eta mirika

*Euskara batuaren ajeak* alarma eta ezta baida pizteko asmoz kaleratu zenuen. Urtebete pasa ondoren, liburuak helburua lortu al du?

Polemika piztu zuen, agian gehiegi, baina ez dut uste lortu dudarik eztabaida sortzea, nik nahi nuen neurrian behintzat. Egia da badagoela jende asko nahiko alde dagoena eta kritikatzeko behar handirik ikusten ez duena. Liburu hauek arrisku bat izaten dute, nik erabat saihestu nahi nuena: momentuan sekulako oihartzuna izan, eta gero idatzi ez balira bezala gertatzea. Hala ere, badirudi hainbat tokitan eta hainbat jendetan, batez ere estilo liburuetan edo maila horretako testuetan, jendeak kontuan izan duela liburuak. Alde horretatik, liburuak arrastoa utziko du.

Liburuari errieta tonua leporatu zaio. Zerorrek onartu duzu nahita idatzi duzula tonu horretan. Jende askoren lana kritikatuz, bestalde.

Tonuari dagokionez, polemika puntu bat behar da, akuilu bat. Euskara batuari ere polemikak lagundu zion arazoa kaleratzera. Liburuarekin mindu diren gehienek lana egiten dute ondo kobratuz; eta batek bere lanagatik kobratzen duenean, bere lanaren kritikak soldataren barruan daude. Ondo kobratu eta behar den profesionaltasunarekin lan ez egitea salatzea da, eta hori gertatzen da. Gure artean badago jende asko bere maila lortu, funtzionario egin eta harrezkero liburuak begiratu ez duena. Hori kritikagarria da, gogor kritikagarria, eta hortxe sartu naiz. Ez dago eskubiderik horretarako. Ez dut inoiz zirikatuko bere kasa eta egoerarik txarrean lanean ari dena. Besteen kontra, ordea, bai, gupidarik gabe arituko naiz. Liburuan horixe salatu nahi nuen batez ere, utzikeria hori.

Liburuan euskarak bigarren batasun bat behar duela aldarrikatu zenuen. Ba al dago girorik bigarren batasun horretarako?

Bigarren batasuna Iparraldeko eta Hegoaldeko euskararen batasuna da. Giroa, ez dago gehiegi, baina egon beharko luke. Ez nintzateke batere harrutuko urte gutxiren buruan moduren bat agertuko balitz Iparraldeko eta

Hegoaldeko euskararen arteko etena bideratzeko eta denontzat balio duten formulak aurkitzeko.

Noren eskutik etorri behar du bigarren batasun horrek? Geure aldetik.

Euskaltzaindiaren eskutik?

Ez, Hegoaldeko aldetik. Euskaltzaindia tartean dago, baina Euskaltzaindiak, berez, gerora begirako lana egin behar du. Eus-

Hegoaldean,  
espainola ondo  
jakin gabe, ez dago  
zenbaiten euskara  
ulertzetik

kaltzaindiak ez du bigarren batasun hori bultzatu behar; bai, ordea, gerora berretsi edo indartu. Bigarren batasun horren bidean oso erraz egin daitezke gauza batzuk. Esate baterako, Euskal Telebistan, antena pila bat jarri dute ETB Iparraldean ikusteko, baina ez dute Iparraldeko aholkularirik. Horretarako ez dago eskubiderik. Nola ez dute, ba, sentsibilitate hori? Oinarritzko sentsibilitate hori falta da gure artean, eta hori izango litzateke lehenengo pausoa. Sentsibilitate arazoa konpontzen denean, arazoaren erdia konponduta izango dugu. Denontzat ari direnez, zergatik ez dituzte aukeratzat denontzat balio duten formulak?

Zein da irtenbidea?

Kontu pixka batekin idaztea, egoera oso txarrean gaudela konturatzeta. Egoera txarren aurrean zerorrek ez badituzu hesiak jartzen, pikutara zoaz. Kanadan oso ondo konturatu dira. Bertan frantsesak oso egoera txarra du eta Kanadako frantsesa Frantziakoa baino garbizaleagoa da, egoera okerragoan dagoelako. Hori beti gertatu da, gure artean izan ezik. Beste batek konkistatuko zaituen beldurra duzunean hesiak jartzen dituzu.

Euskaltzaindiari egozten zaio oso poliki doala euskararen premia berriei erantzuteko lanean.

Hori ez da Euskaltzaindiaren arazoa, Euskaltzaindiari bitarteko gehiago ematen ez dionarena baizik. Euskaltzaindiak nahikoa eta gehiegi egiten du ematen zaion diruarekin.

## Hizkuntzak lanabes, ez ikasgai

Katalanengandik zer ikasi duzu?

Katalanak askoz ere toleranteagoak dira. Klasean independentistetan independentistena sozialista baten ondoan eser daiteke; ez dago, beraz, hemen orain artean izan den girorik. Ikasleen sindikaturik indartsuena independentistena zen –hemengo Ikasle Abertzaleen tankerakoa–, baina beste gauza bat zen, eta gauzak patxada handiagoz hartzen zituzten. Istiluak antolatzen zituzten, jakina, baina hango istiluak hemengoak baino askoz ere konstruktiboagoak dira. Euskal Herrian sinboloek garrantzi handia-



goa dute; katalanak, berriz, pragmatikoagoak dira eta hori ona da, gauza gehiago lortzen dutelako.

Eta hizkuntzari dagokionean?

Egundoko aldea dago Euskal Herriaren eta Kataluniaren artean. Han katalanez hitz egitea normala da, gauzak katalanez egiten dira, ez da ezeren bandera edo sinboloa. Katalana bere horretan defendatzen da, ez ezeren izenean edo mendean. Bada esaten duenik euskaraz ez dela hitz egiten Espainiako legeek eta Konstituzioak debekatzen dutelako. Konstituzio bera dute Katalunian eta hizkuntzak sekulako aurrerakada egin du han. Askotan aitzakia politikoa jartzen da, hizkuntza politikaren menpe eta estrategia jakin baten morroi. Horrelakoetan hizkuntzaren ona helburu orokor horren mesedetan sakrifikatzen da. Euskara bultzatzea da bidea, ez euskararen izenean beste zenbait gauza bultzatzea.

Euskalduntze prozesuaren abiaduraren ondorioz irlandatze arriskuaz ohartarazi duzu.

Beldur hori badut. Geurean ere Irlandan bezala gerta daitezke, alegia, jende guztiak euskaraz jakitea, gehiago edo gutxiago, baina gero inork ez hitz egitea. Hitz egiteari eman behar zaio garrantzia, ez jakiteari. Hizkuntzak hitz egiteko dira, ez jakiteko, eta ez dakit hori gure artean nahiko argi dagoen eta nahiko indar egiten den horretan. Ahalegin handia egiten da jendeari euskara erakusten eta gero hor konpon. Jende askorentzat, gazteentzat batez ere, euskara latinaren tankerakoa da, azterketetan gaingitu beharrekoa baina gero bizitarako balio ez diena. Gure artean edozein aitzakia ona da erdarara pasatzeko eta erdaraz hitz egiteko. Dinamika hori hautsi behar dugu.

Euskarazko administrazio hizkerak bi menpekotasun dituela aipatu duzu: beste hizkuntza batekiko eta beste administrazio egitura batekiko.

Itzulpenen bidez Espainiako edo Frantziako administrazio egitura itzultzen da, ez hitza. Hemen asko gertatzen da hori. Administrazioan gehiegi itzultzen da, eta, egia esan, inoiz ez diot zentzurik aurkitu hainbeste buletin itzultzeari. Nik neuk gaztelaraz irakurtzen ditut badaezpada ere. Euskaraz irakurtzen ditut nola funtzionatzen duten ikusteko. Gauzak hobeto egiteak mantsoago jardutea eskatzen du, eta benetan garrantzitsuak diren gauzetan indarra jartzea, ez gauza guztietan. Niretzat inportanteagoa da Europako legedi komunean ahaleginik handiena egitea, eta Espainiakoak eta Frantziakoak beste maila batean tratatzea. Herriz herri joaten naizenean bandoak irakurtzen ditut eta beldurtuta geratzen naiz.

Funtzionarioa izatea mauka al da?

Niretzat norbaiti funtzionarioa deitzea erabat irain hitza da. Ni funtzionarioa naiz, baina saiatzen naiz funtzionarioa ez izaten. Neure burua funtzionaritzan ikusten dudanean alde egiten dut. Nire ustez, degradazio handienetakoa da hori, eta funtzionario asko ez dira horretaz konturatzen.

Jakes Goikoetxea  
Kazetaria

# Autoikaskuntzatik ikaskuntza autonomora

Lan-munduan prestatzeko beharra eta eskaera gero eta handiagoa bihurtzen ari da. Bestalde, denbora urritasunak, espezializazio handiagoak eta ikasteko erritmoetan izaten diren aldeek oztopatu egiten dute bakoitzarentzat egokiena den prestakuntza-eskaintza emateko aukera. Gero eta beharrezkoagoak ari dira bihurtzen helburu hori lortzeko autoikaskuntzara bideratutako proposamenak.

Garrantzitsua iruditzen zaigu autoikaskuntzaren eta ikaskuntza autonomoaren kontzeptuak zer diren zehaztea eta zertan bereizten diren azaltzea. *Autoikaskuntza* diogunean ikasgelatik kanpo eta irakaslerik gabeko ikaskuntza esan nahi dugu. *Ikaskuntza autonomoa*, bestalde, ikasleak bere ikaskuntza-prozesuaz jabetzeko eta bertan inplikatzeko duen gaitasuna da.

Hizkuntza-prestakuntzaren arloan, Kataluniako Generalitatea eta, zehatzago esateko, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia 1985az geroztik autoprestakuntzako gaiak lantzen ari da, katalana irakasteko presentziatzko ikastaroen eredu alternatiboa edo osagarria eskaini nahian.

Eredu alternatibo hori gauzatzeko autoikaskuntzako zentroak diseinatu dira, katalana ikasi edo hobetu nahi duten pertsonen beharrei erantzun malgu eta norberari ahalik eta ondoen egokitu emateko.

## Zer da autoikaskuntzako zentroa?

Autoikaskuntzako zentroak baliabide ugari, eta sailkatutako eta antolatutako materialez hornitutako tokiak dira. Horietan erabil-tzaileak berak antolatu dezake bere ikaskuntza-programa, berak dituen estrategien eta ikasteko moduaren arabera. Zentro horretan badago aholkulari edo arduraduna ere, eta beraren egitekoa da pertsona bakoitzarentzat eta egoera bakoitzerako egokienak izan daitezkeen materialen eta jardueren berri ematea.

Autoikaskuntzako zentro baten oinarrizko elementu nagusiak hauek dira:

- Autonomia ikaskuntzan.
- Erabiltzaileen aniztasuna: bakoitzak bere gaitasunak, ezaguerak, ingurunea eta abar ditu.
- Materialen eta baliabideen eskaintza ugaria.
- Aholkularia.
- Ikasleen borondatea eta ahalegina.

Autoikaskuntzako zentroak erabil daitezke, eta erabili ere erabiltzen dira, katalana ikasteko sistema bakar gisa. Baina zentro horietako jarduna presentziatzko ikastaroen jardunarekin batera ere garatu daiteke.

## Non aurki ditzakegu horrelako ikastetxeak?

Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusitik horrelako ikastetxeen sorrera sustatu da erakundeetan, organismoetan eta katalanez prestakuntza eskaintzeko premia duten ikastetxeetan. Une honetan 70 zentro ari dira elkar koordinatuta lanean, eredu hori hartu eta bakoitzaren premia zehatzetara egokituta.

Erakundearen eta erabiltzaileen arabera, honela sailka ditzakegu autoikaskuntzako zentroak: unibertsitatekoak, bigarren hezkun-

tzako ikastetxe edo institutuak, Hizkuntza Normalkuntzarako Partzuergoa (*Consorti per La Normalizació Lingüística* –helduei katalana irakasteko organismoak–), lanerako prestakuntzako ikastetxeak, sindikatuak, enpresak, herri administrazioa eta abar.

## Autoikaskuntza herri administrazioan

Kataluniako Herri Administrazioeko Eskola izan da Katalunian Generalitateko administrazioko lan-kontratuko langileei eta funtzionarioei hizkuntza prestakuntza eman dien erakundea urte askotan. Erakunde horrek katalaneko maila guztietako ikastarok ematen ditu lanorduetan eta lanorduz kanpo, lanpostu bakoitzerako behar den titulazioa eskuratu ahal izateko. Hasiera batean zentralizatuta bazegoen ere, pixkanaka-pixkanaka aldatu egin da eta horrek aukera eman die Generalitateko sailei prestakuntza-eskaintza lanpostu bakoitzak dituen premia berezietara egokitzeko.

Baliabideak hobeto erabili ahal izateko eta kontuan izanda administrazioak eskuarki ez duela behar adinako espazio eta langilerik izaten, ez aurrekontu-baliabide gehiegirik ere, Generalitateko sail batzuetan autoikaskuntzako sistema bereganatu dute, dituzten aukeretara eta premietara errazen egokitzen dena delako.

Adibide gisa Justizia Saila aipatu dezakegu. Izan ere, joan den ikasturtean autoikaskuntzaren bidezko prestakuntza eskaini zien saileko langileei. Parte hartu nahi zutenek izena eman behar zuten eta bakoitzaren mailara egokitutako jarduerak biltzen zituen dossier bana eskuratzen zuten astero. Ariketa gehienak bere kabuz zuzentzen zirenak zirenez eta ikasleek erantzuna hurrengo astean jasotzen zutenek, ikasleak beraiek moldatzen ziren zuzenketak egiteko eta oso gutxitan behar izaten zuten irakaslearen laguntza. Gainera, izena emandakoek bazuten tutoretza-zerbitzuaz baliatzeko aukera ere. Emaizta ezin hobea izan zen eta gutxi gorabehera 2.000 lagunek hartu zuten parte autoikaskuntzako sistema horretan.

## Autoikaskuntzarako materialak

Une honetan material kopuru handia dugu, era guztietakoa, katalana ikasteko (eskuliburuak, autoikaskuntzako metodoak, urrutiko ikastarok, multimedia-materialak eta abar). Material horietako batzuk doakoak dira eta web orrialdeetan aurki ditzakegu, esaterako: <http://www.ub.es/slc/ffil/apren/vincles.htm> edo <http://upf.es/gl/>.

Seguruenik laster autoikaskuntzako sistemak izango dira prestakuntzarako biderik onena enpresa moderno eta lehiakorretarako. Baina gogoan izan behar dugu gainera autonomoagoak eta arduratsuekoak izateko gai baldin bagara, horrek izugarri eragin ona izango duela gerora egin ditzakegun ikasketetan.

Rosa María Fernández i Pi  
Montserrat Gimeno i Vida

Kataluniako Generalitatea  
Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia

# Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

Laster beteko dira hamar urte 224/1989 Dekretuak EAEko administrazioan hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak arautu zituenetik, eta hamarkada batek ematen digun perspektibatik esan dezakegu elebitasuna lortzeko pauso garrantzitsua izan zela. Aipatutako Dekretua oinarritzat harturik, 1990 eta 1995 bitartean lehenengo plangintza burutu zen. Horrek emandako emaitzak aztertu ondoren 1998tik 2002ra arte garatuko den plana eratu da.



Lehenengo plangintzaren helburu nagusia herritarrek herri-administrazioarekiko harremanetan dituzten hizkuntza-eskubideak bermatzea izan zen, hots, euskara zerbitzu-hizkuntza bilakatzea. Hori dela-eta, hizkuntza-prestakuntza izan da gehien landu den alorra. Hala ere, indar guztiak ez dira eginkizun horretara mugatu, etorkizunean oso lagungarri izango diren hainbat azpiegitura sortu baitira: hizkera administratiboa gauzatuz joan da, ezinbestekoak diren itzultzaile taldeak trebatu dira eta ahozko eta idatzizko erabilerari ekiteko lehenengo urratsak eman dira.

1995eko uztailaren 30ean Hizkuntza Politikarako Sailordetzak aurkeztutako ebaluazio txostenak erakusten duenez, langile elebidunen kopuruak gora egin du, eta apurka-apurka bada ere, euskararen erabilera areagotzen ari da. Dena dela, gizartean legez, ohiko erabilera ezagutzaren azpitik dago orohar Eusko Jaurlaritzan. Hortaz, plangintza berria ondo bideratzeko funtsezkoa da erabileran eragiten duten faktoreak ezagutzea, izan ere, eurok baitira planaren neurrien eta jarraibideen oinarri. Lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren jabe izatea euskara erabiltzeko derrigorrezko baldintza bada ere, ez da nahikoa. Plan honek ohiko neurrien ondoan beste neurri osagarri batzuk proposatzen ditu erabilerarako bete behar diren baldintza guztiak eskuratze aldera.

## Helburu nagusiak eta eragin eremua

Aurreikusitako erronkari eustea litzateke lehenengo helburua, alegia, euskara zerbitzu-hizkuntza izatea herritarrekiko harremanetan. Bigarrena, beste administrazio batzuekiko harremanetako

hizkuntza bilakatzea, ez baitago legezko arrazoirik, adostasuna tarteko bada, euskara hutsean jardutearen aurka. Hirugarrena, euskara administrazio barruko lan-hizkuntza izatea. Laugarrena eta azkena, administrazioaren ekintza-eremuetan hizkuntza-irizpideak erabiltzea.

Esan beharra dago eragin eremu horiek Euskal Autonomia Erki-degoko administrazio orokorra eta bere erakunde autonomiadunak hartzen dituztela.

## Lehentasunen ezarpena

Euskara lan-hizkuntza bilakatzea apustu estrategikoa da eta pausoz pauso egin beharrekoa. Beraz, ezinbestekoa da lehentasunak ezartzea, helburu hori gauzatzeko luze joko baitu. Lehentasunok erabakitzeke asmoz, sail eta erakunde autonomiadunen izaeraren eta egoera soziolinguistikoaren azterketa egin da, eta emaitzen arabera atalkatzea finkatu. Atal horien izaera kontuan harturik, honako sailkapen hau egin da: jendaurreko atalak, gizarte-izaerako atalak (kanpo harreman nabarmenak dituztenak), izaera orokorreko atalak (batez ere administrazio barruko alorrean dihardutenak) eta izaera bereziko atalak (mantenimendua eta lan teknikoak).

86/1997 Dekretuak, hots, 10/1982 Oinarrizko Legearekin eta Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearekin batera planari oinarri juridikoa ematen dionak, atal elebiduntzat jotzen ditu zereginak bi hizkuntza ofizialetatik, batean zein bestean, betetzen dituztenak. Gaur egun gutxi izan arren, badago plangintzaldi amaierara arte elebidun izenda daitezkeen atalen aurreikuspena egiterik. Horretarako, elebitasun-datak jarriko zaizkie hurrengo bost urteetan baldintza horiek eskura ditzaketean atalei.

Aurreikusitako elebitasun-datak –izaeran eta egoeran oinarrituta–, honako hauek ditugu:

1. 1998ko elebitasun-datak.

Honez gero euskaraz nahiz gaztelaniaz lan egiten duten atalei dagokie. E (elebidun) hizkiaz ezagutaraziko dira.

Langile elebidunen kopuruak gora egin du, eta apurka-apurka bada ere, euskararen erabilera areagotzen ari da

2. 1999ko elebitasun-data. Baldintza nagusiak betetzear dituzten atalei ezarriko zaie. L1(1. mailako lehentasuna) hizki-azagutarako dira.
3. 2001eko elebitasun-data. L2.
4. 2002ko elebitasun-data. L3.

Badaude atal batzuk izaeraren arabera elebidun izendatu beharrekoak, baina baldintzak ez betetzeagatik izendatu ezin direnak. Erabilerarako aukeratu ez arren lehentasuna dute dagozkien derrigortasun-datak ezartze-ko eta langileen hizkuntza-prestakuntza bideratzeko. Atal horiek L4 hizki-azagutarako dira. Azkenik, izaeragatik (atal orokor eta bereziak) eta baldintza egokirik ez izateagatik lehentasunik gabeko atalak ditugu, eta LG da dagozkien hizkia.

### Hizkuntza-normalkuntzarako neurriak

Lau eratako neurriak dira landu beharrekoak:

**A.** Neurri orokorrak. Multzo honetan lau ildo nagusi biltzen dira: derrigortasun-datak eta hizkuntza-eskakizunak, hizkuntza-prestakuntza (euskalduntze-alfabetatzea, alegia), aplikazio eta tresna informatikoak, eta langileen etengabeko prestakuntza.

**B.** Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak. Alde bate-tik, administrazio-atal guztietarako jarraibideak zehazten dira; eta, bestetik, atal elebidunetarako, berezko jarraibideak.

**C.** Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen itzulpen-irizpide osagarriak. Aurreikusitako beharrezkoak honako hauek dira: herritarrei zein beste administrazio batzuetara elebitan bidali beharrekoa euskaratik eta euskarara itzultzea; herritarrei euskara zein gaztelera hutsean (berak halaxe aukeratuta) bidali beharrekoa itzultzea; atal elebidun batean euskaraz sortu eta handik bidalitakoa atal hartzailean itzultzea.

**D.** Hizkuntza-dinamizazio ekintzak. Aurreko neurriekin batera hizkuntza gutxi-tuaren erabilerak bestelako laguntzak ere behar ditu segurtasun-eraz eta hizkuntza-ohiturek sortzen dituz-

ten eragozpenak gainditzeko. Nahiz eta gai hori L2 eta L3 ataletan ere landuko den, ekintza gehiago eratu behar dira eta modu sako-nagoan jorratuko E eta L1 ataletan.

### Ekintza eremu desberdinetarako hizkuntza-irizpideak

Planaren atal honetan administrazioaren jarduerara esparruetan erabili beharreko hizkuntza-irizpideak emango dira. Ondorengo eremuetan eragin nahi da: kontratazio administrazioak, dirulaguntzak eta bestelako laguntzak, argitalpenak, administrazioaren irudia, ekitaldi publikoak, eta baimen edo lagapen administrazioen menpe dauden jarduerak.

### Komunikazio plana, baliabideak eta ebaluazioa

Hizkuntza Politikarako Sailordetzak landu duen komunikazio planaren helburua da eragile guztiei planaren bidez lortu nahi dena ezagutaraztea, nori bere eginkizuna azalduz. Besteak beste, hizkuntza ofizialen erabilerajarraibideak, plana abian jartzeko

prozedura, ezartzeko bideak, eta lortutako emaitzei buruzko azalpenak emango ditu.

Komunikazio planaren hartzaileen artean, administrazio honetako arduradun tekniko eta politikoak, langileak, euskal herri-administrazioak eta herritarrak ditugu.

Giza baliabideei dagokienez, hizkuntza-normalkuntzarako teknikariek berebiziko garrantzia izango dute plana aurrera ateratzekoan. Hori kontuan, planaren garapen zuzenerako beharrezkoak diren baliabideak ipiniko ditu Eusko Jaurlaritzak.

Dinamizazio teknika berrietan eta proposamenak egiterakoan aholkularitzaren premia aurreikusten da, batez ere, tamaina eta konplexutasun handiko sailetan. Eginkizun hauetan sei lagunez osaturiko lan taldea arituko da. Halaber, HAEE-IVAP eta HABEren lankidetzaren teknika behar dira erakunde horien eskumen eremuan.


Baliabide materialen alorrean, euskaraz dauden aplikazio informatikoen eguneratze eta garapena (Windows 98, Word 97 eta berariazko aplikazioak) lehenbailehen burutu beharreko lanak dira. AEBEMET metodologia jarraituz, erabileraren planak taxutzeko aplikazio informatikoen garapena eta lan ingurune fisikoaren egokitzapena ere aurreikusita daude lehentasunen artean.

Ebaluazioa egiteko adierazleetako batzuk hauek izango dira:

- Hizkuntza-irizpide orokorren bilakaeraren adierazleak.
- Atal elebidunen hizkuntza-bilakaeraren adierazleak.
- Elebidunak ez diren atalen hizkuntza-bilakaeraren adierazleak.

Sail bakoitzak emaitzen etengabeko ebaluazioa egingo du sei hilabetero, hizkuntza-eskakizunen egiaztatze frogan emaitzekin batera.

**Hizkuntza-  
-eskakizunaren jabe  
izatea euskara  
erabiltzeko  
derrigorrezko  
baldintza bada ere,  
ez da nahikoa**



# Arantza Aur rekoetxea,

## Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria: "Langileen partehartzea ezinbestekoa da era honetako plangintzetan"



### Zergatik egin da erabilera-plana EAeko administrazio publikoan?

Eusko Jaurlaritzan euskararen ohiko erabilera ezagutzaren azpitik dago, euskal gizartearen beste alor batzuetan ere gertatzen denez. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak objektibokiak direla kontuan izanik, beharrezkoak diren baldintza objektibo horiek eskuratzeko egin da plana, hau da, langile elebidunez osaturiko atalak lortzeko, eta euskara erabiltzeko gutxieneko erraztasuna eskuratzeko. Hori da, beraz, apirilaren 15eko 86/1997ko Dekretuaren bidez Euskadiko herri-administrazio guztietarako euskararen erabilera normalizatzeko plana taxutu beharra ezartzeko arrazoi nagusia.

### Planaren ildoak biltzen dituen txostenean behin eta berriro aipatu duzue langileek egitasmoan partehartze zuzena izan behar dutela. Hori horrela izanik, zergatik ez duzue aurreikusten banakako inkesta (jarrerak ezagutzea ahalbideratuko duena) L2 eta L3 ataletara zabaltzea?

Horrela da. Langileen partehartzea ezinbestekoa da era honetako plangintzetan, eta bide desberdinetatik indartuko da gainera, bai hizkuntza-normalizaziorako proiektuetan partaide bihurtuz, bai beharrezkoa duten aholkularitza eta laguntzak ziurtatuz. L2 eta L3 ataletan erabilera neurriei ekin aurretik hizkuntza-gaitasuna landu beharra dute, harik eta erabilerarako gutxieneko baldintzak bete arte. Beraz, 2001ean azterketa mota guztiak egingo zaizkie, banakako inkesta barne, eta bien bitartean (1999-2000), arlokako azterketa egingo zaie, gutxieneko baldintza horietara heltzeko zer-nolako neurriak hartu behar dituzten zehazteko.

### Aurreko erantzunari lotuta, hizkuntza-gaitasuna dela-eta, ba al dago lan orduetan eskoletara joateko irizpiderik?

Bai, noski. Plangintzaldiko erabilerarako lehenetasunak finkatzeko, oinarritzkoa izan da hizkuntza-eskakizunak derrigortasun-data izatea, eta horren ildotik, langileak lanpostuan derrigortasun-data baldin badu lehenetasuna izango du euskara eskoletara joateko. Eusko Jaurlaritzak langile horien guztien hizkuntza-prestakuntza kontuan izango du, karrerako funtzionarioak izan nahiz behin-behinekoak izan. Bestalde, planak administrazio atalak elebidun izendatzeko lehenetasunak finkatu dituzten gero, lehenetasun maila ere kontuan izango da.

### Zein izango da atal elebidunen jarraibidea?

Atal elebidunetan dokumentazioa euskaraz sortuko da (herritarrek parte hartzen duten espediente edo prozedura administratiobotarako legezko xedapenei edo Plan honetan emandako jarraibideari kalterik eragin barik). Eusko Jaurlaritzan, atal elebidunetan euskaraz sortu den dokumentazioa, sortutako hizkuntzan, euskaraz alegia, bidaliko da beste edozein ataletara. Jarraibide honek ez dezan zamarik ekar, ez atal elebidunentzat ez besteentzat ere, beharrezkoak diren neurri osagarriak hartuko dira.

### Landu beharreko alorretan, beste neurri batzuen artean, erabilera sustatzeko eta erabileraren aldeko jarrerak eragiteko neurri osagarriak aipatzen dira. Zehaztu al duzu hori apur bat?

Bai. Erabilera sustatzeko neurri osagarriez dihardugula, besteak beste, honakook aipatuko nituzke: langileei euskarazko eskolentarako baimenak emateko irizpide bateratuak finkatu eta hizkuntzen erabilerarako ezarritako jarraibideak behar bezala bete daitezten itzulpen-irizpideak finkatu izana. Bestalde, hizkuntza-ohituretan eragiteko, batez ere euskara erabiltzeko zenbait langilek duten segurtasun-falta gainditzen laguntzeko, dinamizazio-ekintzak aurreikusi ditugu; esaterako, hizkuntza-prestakuntza orokorraz gain, zeregin berezietara egokitutako hizkuntza-prestakuntza; atalak elebidun izendatu ahala eta inplementaziorari ekin aurretik, lan-jardunen azterketa eta banakako galdesorta egitea; hizkuntza-gaietarako aholkularitza eskaintzea; eta komunikazio-zirkuluak abiaraztea.

### Zer dira komunikazio-zirkuluak?

Lan-gune berean antzeko zereginak dituzten edo lan berbera egiten duten langileez osatutako talde txikiak dira. Langileen partaidetza borondatezkoa da eta taldea aldiro batzen da. Talde horien helburu nagusia lan-eginkizunetan euskararen erabilera sustatzeko arrazoiak identifikatu eta aztertea da batetik; eta, bestetik, langileen lan-harremanetan hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzea. Erakunde euskararen erabilera areagotzeko talde eragileak dira beraz, planaren garapenean guztien partaidetza bermatzeko balioko dutenak.

### Metodologiari dagokionez AEBEMET aipatzen duzue. Zein da metodologia horren iturria?

Herri-administrazioetan euskararen erabilera era mailakatuan sustatu eta normalizatzeko sortu da AEBEMET metodologia, AEBE (Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz) programaren testuinguruan. Metodologia hau osatzeko hizkuntza-plangintzan honelako arloetan tradizioa duten esperientzien balorazioa egin genuen, atzerriko eta estatuko esperientziak kontuan hartuz: alde batetik, Québec, Kanada, eta Kataluniakoak; eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan egindakoak (lan munduko proiektuak eta udal administrazio proiektu piloak: Bergara eta Antzuola udaletakoak). Balorazioa egindakoan, 1998an zehar datuak bildu, eta normalizazio ekintzak aztertu, proposatu, aplikatu eta inplementatzen lagunduko duen metodologia osatu dugu, dagokion azpiegitura informatikoarekin egokituz horretarako. Metodologia hau Hizkuntza Politikarako Sailordetzan garatu da, eta estandarra izanik, udal, foru aldundi edo Jaurlaritza mailako erakundeetara egokitzeko modukoa da.

Pedro Zuberogoitia  
Kazetaria

# HORI DA ere!

Bai! Horixe da! Beste horren atzetik doan hori! Izan ere, oso lotsatia eta apala da *ere*, (e?! ) eta horrexegatik gustatzen zaio bere izena beti-beti letra xehez idaztea. Eta norbaitek galdetuko du orain: eta esaldi baten aurrean agertzen bada, orduan, zer? Ez, ez. Ez da inoiz esaldi baten aurrean agertuko. Egon lasai! Esan dizuet oso lotsatia dela. Askotan atze-atzean agertzen da, baina, batez ere, tartean agertzea gustatzen zaio, beste hitzen artean, nahasian. Barkatu! Nahasian ez. Berak uste du gainerako hitz guztiak bera bezain lotsakor direla, eta taldean laguntxo berriren bat agertzen denean, lagundu egiten dio eta begirunez esaten dio non eseri behar duen; haren ondo-ondotxoan jartzen da gehienetan, gainerakoei adiskide berria aurkeztu nahian-edo.

Bere lanak ere horrelakoxeak izan dira beti; hau da, apalak eta jendeari laguntzekoak. Orain, umeentzako tren txiki bat dauka: *txu-txu* tren. Han ibiltzen da *ere* ume guztiakin bueltaka, atzera eta aurrera. Baina ez edonon eta edonorekin eserita. Treneko bagoitxo bakoitzak bere izena du idatzita aurrealdean: nor, non, nori, zenbat... Horren arabera antolatzen ditu *erek* umeak. Begira! Orain, esaterako, treneko lehen bagoitxoan... Nor? *Ko-Ko-Korok* dago. Hurrengo orgatxoan, *Ireneri*. Gero, *Goizean*. Ondoren, *Erlojua*. Eta, azkenik... bi daude elkarrekin: *Eskaini* eta *Dio*; lagun minak dira biak, eta ezin dira bakarka ibili. Horrexegatik daude batera. Hara, zelako koadrilla!

**Korok** Ireneri goizean erlojua eskaini dio.

Denak daude eserita, espazioan barrena ibiltzeko prest! Eta *ere* kanpoko aldean, begira, erne, adi. Halako batean, hara non agertzen den beste umetxo bat, negarrez. – *Nola zaizu izena?* galdetu dio *erek*. – *Ka-Ka-Karlak*. – *Ba, etorri nirekin; lasai. Eseri zaitez hemen, Korok-en aurrean eta nire aldamenean.* Eta han doaz guztiak, pozik.

**Karlak ere** Ireneri goizean erlojua eskaini dio. Txu-txuuiu!

Eta hor dabil *ere* egun guztian, atzera eta aurrera. Gero beste ume batzuk ere agertuko dira, esaterako, *Maiteri*, *eguerdian*, *belarritakoa*, *eman*...

Korok **Ireneri** goizean erlojua eskaini dio.

Korok **Maiteri ere** goizean erlojua eskaini dio.

Korok Ireneri **goizean** erlojua eskaini dio.

Korok Ireneri **eguerdian ere** erlojua eskaini dio.

Korok Ireneri goizean **erlojua** eskaini dio.

Korok Ireneri **belarritakoa ere** eskaini dio.

b

a

i

Korok Ireneri goizean erlojua **eskaini** dio.

Korok Ireneri goizean erlojua **eman ere** egin dio.

(Korok Ireneri goizean erlojua **eman ere** dio.)

Eta, orain, adi-adi, aditza dator eta! "*Dio ererik gabe? Dio Dio-k*". Ba, gehienetan behintzat, bai. Asko sentituta, baina, *ere* aditz laguntzailearen atzean jarriz gero, ez genuke jakingo zehatz zein den hitz-trean laguntxo berria. Egia da gaur egun egitura hori gero eta gehiago erabiltzen dena (aditz laguntzailea + *ere*), eta, guk behintzat, ezin dugu esan gaizki dagoenik... baina goian agertzen diren beste antolaketa horiek egokiagoak direla uste dugu. Esaterako, esaldi hau idatziz gero:

\*? Korok Ireneri goizean erlojua eman dio **ere** .

Badakigu aurreko esaldiari zerbait gehitu zaiola, baina, ZER???? Auskalo! Aditz laguntzaileez esandakoak aditz trinkoetarako ere balio du. Adibidez:

– Gu etxera goaz. – **Ni ere** banoa. (edo "**Ni ere** etxera noa"; edo "**Ni ere** bai"; edo "**Ni ere** ").

Ba, horrela idatzita (edo esanda) ikusi/entzun beharrean, beste era hauetara agertuko zaigu egitura hori, modu okerrean gure ustez:

\* Ni banoa ere / \*Ni banoa ere bai / \*Ni ere banoa baita / \*Ni banoa ere baita / \*Ni banoa baita ere.

Beno, aditzak utzi eta gainerako hitzak hartuko ditugu berriz ere. Hitzak edo hitz-koadrillak... ze, lagun bakar bat agertu beharrean, *ereri* koadrilla osoa agertzen zaionean, orduan, zer? Zer? Ezer ere ez! Ez da larritzen *ere*, trentxoan guztientzako lekua dago-eta. Esaterako:

Korok **erlojua** eman dio. **Bere amonak txikitan opari eman zion eraztuna ere** eman dio.

**Adiskide delako** eman dio. Eta **behin lan bat egiten lagundu ziolako ere** eman dio.

**Hori** esan dio. **Lagunekin bihar mendira joango dela ere** esan dio.

Beste askotan, *erek* hain lan handia izaten duenez, beste adiskide batzuk izaten ditu trentxoan laguntzaile: **Eta, Bai, Ez**. Horietakoren bat (bakarra) lagun hartuta ager dakiguke *ere* han-hemenka:

Egun on! **Bai** zeuri **ere** ! (edo "baita zuri ere!")

Korok Ireneri erlojua eskaini dio; Karlak **ere bai** .

Korok ez dio erlojua Ireneri eskaini. Maiteri **ere ez** .

Korok Ireneri erlojua eskaini dio, **eta** belarritakoa **ere** eskaini dio.

Baina, gehienetan, hironaka ibiltzea gustatzen zaie. *Bai- Eta-ere*, egunez, edo *Ez-Eta-ere*, gauez. Hiruko talde horietan, jakina, beti agertuko zaigu *ere*; bestela, *ere* agertzen ez bada, esaldia gehienetan herren geratzen da eta: \**Peru badator, eta Jon? Baita*. Horrela, ez; baina hirurak batera, bai: *Baita ere*. Edo, bestela, honela: (*Eta*) *Jon ere bai*.



\* *Marik ez dauka, eta Martinek? Ezta.* Horrela, ez; baina hirurak batera, bai: *Ezta ere.* Edo, bestela, honela: (*Eta Martinek ere ez.*

Oharra: "*baita*" edo "*ezta*" eurak bakarrik ere ager daitezke, oso testuinguru konkretuetan; batez ere, ahozkoan, doinu berezi bat erabilita, eta "*ere*" izkutan gordeta dagoela. "*Nik horri dirua eman? Ezta...* (zoraturata ere!)"

Gehienetan, hirunaka, bai, hirunaka ibiltzen dira; baina, ez edonola, edo edonon eserita. Bakoitzak bere tokia izaten du *txu-txu* horretan. Edo toki bat baino gehiago. Baina ez edozein. Adibide modura, egokia ez den antolaketa bat aipatuko dugu:

- Zu bazoaz?	Kepak ez dauka motorrik?
- Bai	- Ez.
*- Ni ere baita.	*- Nik ere ezta.
["Ni ere (bai)" edo "Baita ni ere" izan behar luke]	["Nik ere ez" edo "Ezta nik ere" izan behar luke]

Beraz, hiruko taldean bi, beti lanean, gau eta egun: *Eta/ere*. Beste bi, berriz, txandaka dabilta: bata, egunez, *Bai*, eta, bestea, gauez, *Ez*. (Jakina! Aurreko esaldia baiezkoa edo ezezkoa den). Hiruko taldetxo horretan oso ondo moldatzen dira. Trenean igo nahi duten umetxo lotsatiei harrera ezin hobea egiten diete hiruren artean. Atzeko bagoitxoan jartzen dira *Bai, Eta, ere* eta ume lotsakorra. Nola esertzen diren? Sarritan *Eta* aurrean. Atzean *ere bai*. *Ez*. Esan nahi dut atzean *bai* eta *ere* doazela eserita. Erdian, ondo babestuta, hitz etorri berria. Ongi etorri! Hori dena, jakina, egunez. Gauez, berdin-berdin, baina *Bai*-ren ordeaz, *Ez*. Hor doaz denak!

- |   |   |
|---|---|
| • Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio, <b>eta Karlak ere bai</b> .          | • Korok Ireneri goizean ez dio erlojurik eskaini, <b>eta Kar - lak ere ez</b> .         |
| • Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio, <b>eta Maiteri ere bai</b> .         | • Korok Ireneri goizean ez dio erlojurik eskaini, <b>eta Maite - ri ere ez</b> .        |
| • Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio, <b>eta eguerdian ere bai</b> .       | • Korok Ireneri goizean ez dio erlojurik eskaini, <b>eta eguer - dian ere ez</b> .      |
| • Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio, <b>eta belarrita - koa ere bai</b> . | • Korok Ireneri goizean ez dio erlojurik eskaini, <b>eta bela - rritakorik ere ez</b> . |
| • Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio, <b>eta eman ere bai</b> .            | • Korok Ireneri goizean ez dio erlojurik eskaini, <b>eta eman ere ez</b> .              |

Beste batzuetan, egunez, *Bai* eta *Eta* elkarren ondoan joaten dira aurrean eserita. Gauez, berriz, *Ez* eta *Eta*. Elkarren ondoan... edo bat eginda, estu-estuan..... Holakoetan, atzean joaten da *ere*, ume lotsatia babesten.

- |  |  |
|--|--|
| • Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio, <b>baita Karlak ere</b> .       | • Korok Ireneri goizean ez dio erlojurik eskaini, <b>ezta Kar - lak ere</b> .  |
| • Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio, <b>baita Maiteri ere</b> .      | • Korok Ireneri goizean ez dio erlojurik eskaini, <b>ezta Mai - teri ere</b> . |
| • Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio, <b>baita eguer - dian ere</b> . | • Korok Ireneri goizean ez dio erlojurik eskaini, <b>ezta eguerdian ere</b> .  |

- |   |   |
|---|---|
| • Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio, <b>baita belarri - takoa ere</b> . | • Korok Ireneri goizean ez dio erlojurik eskaini, <b>ezta bela - rritakorik ere</b> . |
| • Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio, <b>baita eman ere</b> .            | • Korok Ireneri goizean ez dio erlojurik eskaini, <b>ezta eman ere</b> .              |

Zenbaitetan, trenean atzera eta aurrera gehiegi ibilita edo, normala denez, zorabiatu egiten gara, eta, orduan, birritan, bikoiztuta ikusten ditugu gauzak. Esaterako, gure taldetxo honetan hiru lagun izaten ditugu: *Bai (edo Ez), Eta, ere*. Ba, horietako bakoi-tza behin agertuta, nahikoa izaten da. Beraz, kontuz zorabioekin, eta ahalegindu gure lagunak ez bi aldiz aipatzen:

- |  |  |
|--|--|
| * <b>eta ezta</b> ere belarritakoa.            | * <b>eta baita</b> ere belarritakoa.             |
| * <b>eta ezta</b> belarritakoa ere.            | * <b>eta baita</b> belarritakoa ere.             |
| * <b>ez ta</b> belarritakoa ere <b>ez</b> .    | * <b>bai ta</b> belarritakoa ere <b>bai</b> .    |
| * <b>ez taere</b> belarritakoa <b>ere ez</b> . | * <b>bai taere</b> belarritakoa <b>ere bai</b> . |

Azkenik, amaitzeko, beste ohartxo bat: inoiz edo behin, hirurak batera ere joan daitezke (bai eta ere, baita ere / ez eta ere, ezta ere), baina beti-beti bagoitxoaren aurreko aldean, eta, batez ere, trenean eseri beharreko koadrilla oso handia denean. Hona hemen Mitxelenaren adibide bat:

"Eta ez nuke nahi inork hau txartzat har lezan... **ezta ere hara - ko gorago esan dudana hura**"

Baina, kontuz! Hiruko taldetxo hau ez ezazue eseri, mesedez, ez atzean, ez erdian. Beste era hauetara jarritz gero, ez da euren aurpegietan irribarrerik ageriko. Beraz, ahalegindu egin beharko dugu honelakorik ez egiten:

Korok Ireneri goizean **belarritakoa** eskaini dio **baita ere**.  
Korok Ireneri goizean **baita ere belarritakoa** eskaini dio.  
Korok Ireneri goizean erlojua eskaini dio. **Belarritakoa ere baita**.

Beste gauza asko eta asko esan daiteke // *ere* gure laguntxo honetaz; hain da maitagarria! Baina, zoritxarrez, bukatu beharrean gaude. Amaitzeko, omenalditxo honetara etortzerik izan ez duten adiskide batzuk aipatuko ditugu: *izan ere, hala ere, ezta pentsatu ere, beti ere, esatea ere!, ezta hurrik eman ere!, ezta gutxiago ere!, ezta nahi ere, baita ederki eman ere...* eta beste asko eta asko badago ere, ezin hemen denak aipatu. Agur, *ere!* Gehienetan bezala, berriz ere, azkenean joango zara orain *ere*. Beti letra xehez idazten zaitugu, baina merezi duzu, bai, guk zu idaztea, behin bada ere, letra handiz ERE.

Manu Arrasate  
Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko zuzentzailea

i  
a  
b  
e  
r

# Bulegoko gauzak

Demagun bulegoan lanean ari zarela eta bat-batean konturatzen zarela errotuladore berriak eskatu behar dituzula zaharrek pintatzen ez dutelako. Bidenabar, beste hainbat material eta tresna eskuratzeko asmoa daukazu; baina, materiala eskatzeko orria betetzerakoan... ai, ene! Horiek nekeak eta buruhaustek! Nola esaten da euskaraz *post-it*, *portaclips*, *rotulador fluorescente*, *quitagrapas*...? Zalantza horiek argitu nahian, hona hemen, bulegoko gauzen hiztegitxo bat. Zerrenda honetan ez dituzu termino guztiak aurkituko, oinarritzkoenak baizik; bestalde, behin-behinekoa baino ez da, erabileraren erabileraz osatzen eta finkatzen joango baita. Bitartean, hemen duzu, buruko min askoren sendabide.

## A

**abrecartas:** eskutitzak irekitzeko(a)  
**acuse de recibo:** jaso izanaren agiri  
**agenda:** agenda; egitekoen liburu  
**alfombrilla para ratón:** sagu azpiko tapiz  
**almohadilla para tinta:** tinta-tanpoi  
**anilla:** uztai  
**arandela adhesiva:** eraztun itsasgarri  
**archivador AZ con palanca:** AZ karpeta palankadun  
**archivador para disquetes:** disket-kutxa  
**archivador para papel continuo:** paper jarraituko karpeta  
**archivo colgante:** zintzilikatzeko artxibo  
**artículos de higiene y limpieza:** higiene eta garbiketako gaiak  
**atril:** liburu-euskarri

## B

**bandeja de sobremesa:** mahai gaineko azpil  
**banderita post-it:** paper-zerrenda itsasgarri  
**block de escritura con espiral:** idazteko koaderno kiribildun  
**block de escritura sin espiral:** idazteko koaderno kiribilgabe  
**block para pizarra:** arbeleko koaderno  
**bobina de papel:** paper-txirrika  
**bolígrafo:** bolaluma  
**bolsa de celulosa:** zelulosazko poltsa  
**bolsa Kraft (de burbujas):** Kraft poltsa (burbuiladuna)  
**bolsa Kraft sin imprimir:** inprimatu gabeko Kraft poltsa

## C

**cabeza de escritura para máquina de escribir:** idazmakinako idazketa-buru  
**caja de cartón para embalajes:** paketatze kartoizko kutxa  
**caja para archivo definitivo:** behin betiko artxibatze kutxa  
**calculadora:** kalkulagailu  
**calendario:** egutegi  
**canutillo de plástico para encuadernar:** orriak lotzeko plastikozko kiribil  
**carnet:** txartel  
**carpeta con anillas:** uztaidun karpeta  
**carpeta con fundas interiores:** plastikozko zorrodun karpeta  
**carpeta con gomas y solapas:** gomadun eta hegaldun karpeta  
**carpeta con pinza:** pintzadun karpeta  
**carpeta portalegajos:** lokarridun karpeta  
**carpeta y archivador para papel continuo:** paper jarraituko karpeta  
**carpeta para archivo colgante:** zintzilikatzeko artxibo-karpeta

**carretilla plegable:** eskorga tolesgarri  
**cartabón:** eskuaira  
**cartucho de tinta:** tinta-kartutxo  
**cartulina:** kartoi mehe  
**CDR; CD-ROM:** CD-ROM  
**cenicero:** hautsontzi  
**cinta adhesiva:** zinta itsasgarri  
**cinta cassette:** kaset-zinta  
**cinta correctable para máquina de escribir:** idazmakinako zinta ezabaeraz  
**cinta correctora para máquina de escribir:** idazmakinako eza-batzeko zinta  
**cinta de encuadernar:** orriak lotzeko zinta; orriak josteko zinta  
**cinta de vídeo:** bideo-zinta  
**clip:** klip  
**consumibles:** berritzeko gaiak  
**corrector de escritura:** tinta-ezabagai  
**cuerda para embalajes:** paketatze soka

## CH

**chincheta:** txintxeta

## D

**destructora de papel:** paper-suntsigailu  
**disquete:** disket  
**documento contable:** kontabilitateko agiri

## E

**embalaje:** paketatze  
**encuadernador deslizante:** orri-lokailu irristakor  
**encuadernador tipo Fastener:** itxigailu erako orri-lokailu  
**encuadernar:** orriak lotu; orriak josi  
**escalímetro:** eskala-erregela  
**escuadra:** eskuaira  
**etiqueta adhesiva:** etiketa itsasgarri  
**etiqueta en hojas A4 para impresoras:** inprimagailuetako A4ko etiketa-orri

## F

**fax:** telekopia  
**ficha de cartulina lisa:** kartoi mehezko txartel marragabe  
**ficha de cartulina rayada:** kartoi mehezko txartel marradun

**fichero de sobremesa:** mahai gaineko fitxategi  
**filtro para pantalla:** pantailaren irazki  
**fotocopiadora:** fotokopiagailu  
**funda de plástico:** plastikozko zorro  
**funda para plastificar:** agiriak plastikoz estaltzeko xafla

## G

**goma de borrar:** ezabagoma  
**goma elástica:** goma elastiko  
**grabadora:** irargailu; grabagailu  
**grapa:** grapa  
**grapadora:** grapagailu

## H

**hoja A4 en colores:** A4ko orri koloredun  
**hoja con escudo:** armarridun orri

## I

**impresora:** inprimagailu  
**índice(s) y separador(es):** aurkibide eta bereizgarri(ak)

## L

**lámina Glasspack:** plastikozko xafla  
**lapicero; lápiz:** lapitz; arkatz  
**libro de registro de entrada:** sarreren erregistro-liburu  
**libro de registro de salida:** irteeren erregistro-liburu  
**listín telefónico:** telefono-aurkibide

## M

**máquina de escribir:** idazmakina  
**máquina de rotular:** izenburuak egiteko makina  
**margarita para máquina de escribir:** idazmakinako bitxilore  
**mina (de lápiz):** lapitzarri  
**mojasellos:** zigiluak bustitzeko(a)

## O

**ordenador:** ordenadore; konputagailu

## P

**panel adhesivo:** ohol itsasgarri  
**pantalla de ordenador:** ordenadorearen pantaila  
**papel continuo:** paper jarraitu  
**papel Galgo (folio):** Galgo orri  
**papel para fotocopiadora:** fotokopiak egiteko paper  
**papelera:** paperontzi  
**papelera de varilla:** ziridun paperontzi  
**paragüero:** aterki-ontzi  
**pegamento:** kola  
**perchero:** esekitoki

**pila:** pila  
**pinza sujetapapeles:** paperak batzeko pintza  
**pizarra:** arbel  
**plancha de rotulación:** izenburuak egiteko xafla  
**portacalendario:** ohar-egutegien euskarri  
**portaclips:** klip-ontzi  
**portafirmas:** izenpeen karpeta  
**portalámparas:** lanpara-euskarri  
**portalápices:** lapitz-ontzi  
**portaminas:** lapitzarri-etxe  
**portarrollos para cinta adhesiva:** zinta itsasgarriaren euskarri  
**portasellos:** zigilu-euskarri  
**post-it:** ohar-orri itsasgarri

## R

**ratón:** sagu  
**regla:** erregela  
**reposapiés:** oin-euskarri  
**resma de papel para imprenta:** inprimatzeko orriak  
**rollo de papel para embalaje:** paketatzeko paper  
**rotulación:** izenburuak egite  
**rotulador:** markatzeko luma; errotuladore  
**rotulador fluorescente:** markatzeko luma distiratsu; errotuladore distiratsu

## S

**sacagrapas:** grapak kentzeko(a)  
**sacapuntas:** zorrozkaile  
**segundas hojas:** bigarren orriak  
**sello de caucho:** kautxuzko zigilu  
**separador(es):** bereizgarri(ak)  
**solapa (de carpeta):** hegal (karpetarena)  
**soporte de sobremesa:** mahai gaineko euskarri  
**soporte para ratón:** sagu-euskarri  
**spray para limpieza de pantalla:** pantaila garbitzeko aerosol  
**subcarpeta:** barruko karpeta  
**sujetalibro:** liburu-muga

## T

**taco de calendario:** ohar-egutegi  
**taladro:** zulagailu  
**talonario cuadrulado A4:** A4ko blok laukidun  
**talonario impreso:** blok inprimatu  
**tarjetero:** txarteldegi  
**télex:** telex  
**tijera(s):** guraize(ak); artazi(ak)  
**tinta:** tinta  
**toallita para limpieza de pantalla:** pantaila garbitzeko zapi  
**toner:** toner  
**toner reciclado:** toner birziklatu  
**transparencia para fotocopiadoras:** fotokopiak egiteko gar-denki

# Euskal selekzioak, legez kanpo?

Eusko Legebiltzarrak 1998an onartu zuen Euskadiko Kirolaren Legea, 144 artikuluz osatutako lan mardula eta zabala. Hala ere, Euskadiko Kirolaren Legea, bere garrantziagatik baino ezagunagoa egin da harrotu dituen hautsengatik. Izan ere, Espainiako Administrazio Publikoen Ministerioak errekurritu egin zuen legearen 16. artikularen seigarren puntua. Honakoa dio 16.6ak: "Euskal federazioei baino ez dagokie euskal kirol federatua Estatuan eta atzerrian ordezkatzea, zeini bere kirol-motan. Beren kirol selekzioek Estatuako eta nazioarteko kirol ekintza eta lehiaketetan parte hartzea sustatu eta bideratu beharko dute euskal federazioek".



**Xabier Leibar**  
Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendaria

Komeni da jakitea Eusko Legebiltzarrean EAJ, EA, HB eta EB-IUren babesarekin onartutako Euskadiko Kirolaren Legea indarrean dagoela. 144 artikulutik dituen Euskadiko Kirol Legearen esaldi bat bakarrik errekurritu dute: "Euskal federazioei baino ez dagokie euskal

kirol federatua Estatuan eta atzerrian ordezkatzea, zeini bere kirol motan".

Eusko Jaurlaritzak errekurtsuaren aurka emandako arrazoia izan da legeak ez duela eraginik nazioarteko ordezkartzaren gune zentralari dagokionez, Espainiako Kirolaren Legean selekzioek Espainia ordezkatzeko baitute; gure legean, aldiz, selekzioek dagokien euskal federazioa ordezkatzeko dute.

Nazioarteko harremanak "nazioarteko sujetaen arteko harremanak dira eta nazioarteko zuzenbideak arautzen ditu". Nazioarteko kirol federazioak, Nazioarteko Batzorde Olinpikoa eta antzeko beste egitura batzuk beren egoitza duten herrialdeetako kode juridikoen bitartez arautzen dira, ez nazioarteko zuzenbideagatik. Gainera, erakunde pribatuak dira, ez publikoak.

Planteatzen da zati batek ezin duela osotasunarekin lehiatu, EAEk Espainiarekin, baina ez da hala gertatzen Puerto Ricok eta Estatu Batuekin lehiatzen dutenean. Nazioartean onartzen da Hawaiki, surfa sortu zuen herrialdeak, Estatu Batuekin lehiatzea nazioarteko surf txapelketetan, baina badirudi ezinezkoa dela halakorik gertatzea euskal pilotaren eta EAEren kasuan.

Beste alderdi garrantzitsu bat da herrialde olinpiko kontzeptuak ez duela nahitaez bat egin behar estatuarekin. Pierre de Coubertain-ek gai honen inguruan idatzi zuenez, "nazio bat ez da nahitaez estatu independente bat, eta badago kirol geografia bat batzuetan geografia politikoarekin bat etor ez daitekeena" (Hong-Kong, Guam, Antilla Holandarrak... estaturik gabeko Nazio Batzorde Olinpikoak dira).

Nabaria da, guretzat behintzat, eskubidea dugula euskal selekzioek maila gorenean lehiatzeko, nahiz eta erabaki hori ez egon EAEren edo Espainiaren menpe, nazioarteko erakunde menpe baizik. Horregatik, saiatuko gara Nazioarteko Pilota Federazioak gu onartzen, saiatuko gara euskal selekzio moduan nazioarteko sokatira txapelketetan lehiatzen...



**Cesar Gonzalez de Heredia**

Nazioarteko Pilota Federazio zuzendaria

Errekurtsua jartzearen erabakia politikoa da eta errekurtsua bera hari-haritik helduta dago. Azken batean, artikulutik bateko esaldi baten aurka jarri da errekurtsua; hain zuzen, euskal federazioei baino ez dagokiela euskal kirol federa-

tua estatuan eta atzerrian ordezkatzeko esaten duena. Errekurtsua euskal federazioen ordezkartzeko mugatzeko aurkeztu dute.

Errekurtsuaren oinarri garrantzitsuenetarikoa bat Espainiako Konstituzioaren 149.1.3 artikulua da. Horrek esan nahi du Estatuari berari bakarrik dagozkion eskuduntzen artean kokatzen duela selekzioen arazoa, hau da, nazioarteko harremanen barruan. Eta hori guztia, kirol erakundeek antolatuta eta arautzen dituzten lehiaketek eta beren esparruak nazioarteko izateko dutelako.

Auzitegi Konstituzionalak azaldu du, inoiz, Estatuaren aldeko 149.1.3 artikuluko eskuduntza erreserba hori zertan datzan. Batetik, tratatuak egiteko gaiei dagokie, edo Estatuako kanpoko ordezkartzari (*ius legationis*); eta bestetik, Estatuaren nazioarteko erantzukizunarekin zerikusia duten kasuei.

Ez dakit Espainiako Auzitegi Konstituzionalak zer esango duen horretaz; ez dakit nondik aterako den, baina, gehiegizkoa iruditzen zait esatea nazioarteko lehiaketetako kirolaren ordezkartzak Konstituzioak Estatuarentzako gordetzen dituen nazioarteko harremanetan ondorioak dituela.

Horretaz gain, nahiz eta Auzitegi Konstituzionalak Euskadiko Kirol Legeko 16.6 artikulua Konstituzioaren kontratatzat jo, aintzat hartu behar da nazioarteko federazio guztiak erakunde pribatuak direla, ez daudela lotuta estatuetako legediei. Horrek esan nahi du federazio bakoitzak bere estatutu eta arauak dituela, eta posible dela euskal federazio bat onartzea nazioartean, federazioko arauak onartzen badute edo arauak aldatzen badira. Salbuespenak eta kasu bitxiak badaude, arrazoi historiko edo politikoengatik, kasuak egon badaude.

Gai honetan ez da ahaztu behar politikaren eragina, eta gai hau ezingo da utzi eskabide eta negoziazio politiko normaletatik kanpo. Beti izango du hartu-eman zuzena.



## Coral Rodriguez

Ongizate Idazkaria PSE-EEren Komisio Ejekutiboan  
Senadorea Madrilen

Euskadiko Kirolaren Legeak Eusko Legebiltzarrean izan zuen tramitazioan sozialistok azaldu genuen ez geundela ados lege horren zenbait artikulurekin, uste baikenuen kutsu abertzale nabarmena izateaz gain, gure herrian kirola politizatzeke borondate nabaria zutela.

Horrela, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuran salatu genuen nahita egindako eta kalkulaturako Euskal Legearen ambiguitasuna, batez ere, kirolariak Espainian eta nazioartean federazioa duten kirol egituretan partehartzearekin lotutako puntu guztiei dagokienez. Maite Pagazaurtundua sozialiston bozeramaileak aurreratu zuenez, “agian, legeak lortuko duen gauza bakarra, egunen batean auzitegiren batek legearen interpretazio zuzena argitzea eta agintzea izango da, gure marko juridiko-politikoak betez”.

Eta horretan gaude. Espainiako Auzitegi Konstituzionala izango da kirol kontuetan kompetentzien banaketa argituko duena, azken batean, badi-rudi hori dela eztabaida. Espainiako 1978ko Konstituzioak 43.3 artikuluan esaten duenean botere publikoek kirola bultzatuko dutela, ez du finkatzen zein botere publiko den kompetentzia eta ez du zehazten kompetentzia eskusiboa den edo ez. Baina 148.1.19 artikulua ezartzen duenez, “autonomi erkidegoek kirol kompetentziak bere gain har ditzakete kirolaren promozioan”. Eta hala izan da. Autonomi erkidego guztiek kompetentzia eskusibotzat hartu dute kirola beren autonomia estatutuetan.

Hala ere, askok uste dugu autonomien kompetentzia eskusibo hori zehaztu egin behar dela; kompetentzia banaketa horretan nabardurak sartu behar direla, ez baita ahaztu behar kirolean estatuko edo nazioarteko lehia dagoela, eta Auzitegi Konstituzionalaren doktrinaren arabera, horrek lurralde propioari mugatutako autonomia erkidegoen kompetentzia eremua gainditzen du.

Zentzu horretan, Auzitegi Konstituzionalak berak zera esan zuen 1986an kirol federazioei buruz: “Autonomia Erkidegoak, autonomia estatutuari jarraituz, kirol kompetentziak ditu; hala ere, autonomia erkidegoaren kompetentzia horiek eta gainontzeko guztiak ezin dira zabaltu, kasu honetan bezala, eremu nazional batean existitzen eta jarduten duten erakundeetara”. Eta Espainiako Auzitegi Konstituzionalak gehitu zuen ezi-nezkoa dela –Konstituzioan autonomia erkidegoei aitortzen zaien autonomia kontuan– “Espainiako kirol federatuen interesei eragitea”.



## Iñigo Santxo

Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeko (ESAIT) abokatua

Euskal Selekzioaren inguruko eztabaida ez da berria, euskal kirolariak aspalditik adierazi baitute gai horren inguruan duten kezka. ESAITek beti plazaratu du iritzi berbera: daukagun markoa, inposatua izan arren, erabili egin behar dugu bere muga ezagutu ahal izateko. Kritika gogorak egin dizkiogu 1988ko Legeari, kirolaren gainean eskuduntza eskusiboa izanik, oso epela baitzen eta ez baitzuten betetzen euskal kirolarien nahiak.

Hori horrela, ekainaren 11n Kirolaren Legea onartu zen Legebiltzarrean, gure erakundeak egindako emendakinen mamia jasoaz. Legea, hobea izan zitekeen arren, funtsean, euskal kirolarien nahiak jasotzen zituela esan daiteke; eta gainera, aspaldi gauzatzen ez zen quorumaren babesa izan zuen. Horrek, alderdi espainolisten artean suak eta garrak piztu zituen, eta helburu espainolen alde egitearren euskal kirolarien interesak alde batera utziz, asko izan ziren EAETik eta Estatutik legearen kontra aireratu ziren ahotsak.

Dagoeneko Madrilgo Gobernuaren errekurtsioa tartekaturik dago eta esandako guztiak entzun eta ostean, ikusi dugu legearen artikulua bakar bat, barkatu, artikulua baten puntu bakar bat errekurritu dutela, 16.6a alegia. Errekurtsioarekin puntu horren garapena gelditzea lortu dute, eta hortik euskal herritarrok orokorrean, eta euskal kirolariak bereziki, zenbait ondorio atera behar ditugu:


1.- Egungo markoaren ondorioz, EAEk eta Nafarroak kirolaren eskuduntza eskusiboa dute. Hori horrela izanik, Estatuak Kirolaren Legea errekurritu eta geldiarazteak argi eta garbi erakusten ditu Estatuaren eta Amejoramentuaren mugak eta gabeziak. Ondorioz, euskal kirolariak ere, euskal gizartearen gainontzeko agenteekin bat eginda, marko egokiago baten aldeko aldarrikapena egiten dute, euren erabakiak, edo euskal politikariak euren babeserako hartuko dituzten erabakiak, Madrilgo eta Pariseko gobernuak errespetatu dituzten.

2.- EAEn onartutako Kirolaren Legean aurrirakusten den Euskal Kirol Federazioen Batasunaren bitartez, Nafarroako eta Iparraldeko jokalariek, teoriarik behintzat, euskal selekzioetan parte hartu ahal izango dute.

3.- Errekurtsioa tartekatu arren, puntu bakar bat geldiarazi dute, baina hala eta guztiz ere, indarrean dagoena, lege osoa kasik, Nazioarteko Kirol Federazioen aurrean aurkeztuta lege euskarri nahikoa da bertako kidea izateari begira sarrera eskatzeko. Ondorioz, epe laburrean ikusiko dugu nola onartuko dituzten euskal federazioak nazioarteko federazioetan, eta ondoren automatikoki euskal selekzioek nola lehiatuko duten nazioarteko txapelketetan modu ofizialean.

Jakes Goikoetxea  
Kazetaria

# Euroaren sarrera



Ekonomia eta Diru Batasunaren (EDB) alderdirik berezi eta adierazleena da diru bakarra. Europako merkatu bakar bat gauzatzearen eta horrek dakarren guztiaren katalizatzaile izango da.

Europako Batasuneko (EB) hamabost kideetatik hamaika prestata daude Diru Batasunerako (DB). Estrategiaren eta jardueraren ikuspegitik oraingo hau dugu guztiok erronka horri aurre egin ahal izateko prestatzeko unea.

Ekonomia-ikuspegitik, diru-arlo sendo batekoak izateak egonkortasun ekonomiko handiagoa ekarriko digu eta, ondorioz, hazkunde orekatuagoa ere bai. Hain zuzen, interes-tasak baxuagoak izatea espero da eta finantza-merkatuek herri bakoitzeko merkatuak banaka batuta baino gorago egitea. Kontsumitzaileek merkatu zabalagoa eta lehiakorragoa izango dute eta etekin hobea ateratu ahal izango dituzte, bai ondasun eta zerbitzuei dagokienean, bai finantza-produktuen aukerari begira. Enpresek ere ahalik eta probetxurik handiena ateratu behar diete aurkezten zaizkien aukera berriei, eta horrela, beren jardura ekonomikoan euroa sartu izanaren eragina aztertuz, merkatu gardenago batek eskatzen duenera egokitu ahal izango dira.

Euroaren sarrera hiru urratsetan burutuko da.

**A urratsa:** Diru Batasuna prestatzekoa. 1998ko maiatzaren 31tik 1998ko abenduaren 31 artekoa. Urrats honetan, Diru Batasuneko partaideak aukeratu dira gaur egun Europako Batasuneko kide diren estatuetatik, Europako Banku Zentrala sortu da, diruak trukatzeko baliokidetzak ezarri dira eta euroaren esparru juridikoa onartu da.

Euroak egonkortasun ekonomiko handiagoa ekarriko digu eta, ondorioz, hazkunde orekatuagoa ere bai

**B urratsa:** Igaroaldia eta EDBren benetako hasierakoa. 1999ko urtarrilaren 1etik 2001eko abenduaren 31 artekoa. 1999ko urtarilaren 1az geroztik:

- Euroa diru ofiziala izango da EBko kide eta, batera, DBko partaide diren hamaika estatuetan. Herri bakoitzeko diruak –pezetak-eta-, ibilian jarraituko du kontu-unitate, euroaren zatitzaile eta ordainketa-bitarteko legez.
- Hamaika herrietako diruaren eta euroaren arteko truke-tasa atzera bota ezina izango da.
- ECU bat euro bat izango da.
- Diru-politika, hots, inflazioa kontrolatzea eta interes-tasak finantzea, Europako Banku Zentralaren ardura izango da. Espainiako Bankuak MIBOR argitaratzeari laga egingo dio, eta adierazle hori Ekonomi eta Ogasuneko Ministerioaren ardurapeko izango da, beste erreferentzia bat –ADIBOR izan daiteke– hartu bitartean.

Igaroaldian ez da euro fisikorik izango, pezeta erabiliko da eskurako ordainketak egiteko; euroa bankuko transferentziak eta eskurakoak ez diren ordainketak egiteko erabili ahal izango da.

Europako Batasunak bere 974/98ko Araudian ezarritako printzipioak aginduko du igaroaldian: “debekurik ez, obligaziorik ez” printzipioak. Horrek esan nahi du euroa edozein sal-erosketatan erabili ahal izango dela, baina ez dela beharrezkoa izango erabiltzea.

**C urratsa.** Diru bakarraren behin-betiko sarrerakoa. 2002ko urtarrilaren 1a eta 2002ko ekainaren 30a bitartekoa. Azken egun horren biharamunean jarriko dira ibilian euro-bileteak eta euro-txanponak. Aldi horretan aldatuko dira bileteak eta txanponak. Pezetak eta beste herrietako diruek utzi egingo diote kontu-unitate izateari eta ordainketa-bitarteko besterik ez dira izango. Euroa (bilete-monetak) eta pezeta, biak erabili ahal izango dira.

Hitzarmenaren jarraipenaren edo legezko baliokidetzaren printzipioa izango da aldaketa horien oinarria. Ezin izango da baliogabetu ekintza juridikorik dirua euro bilakatu dela-eta.

2002ko uztailearen 1az geroztik pezeta amaitu egingo da, euroa izango da legezko erabilerako diru bakarra.

## Euroa eta Administrazioa

Eurorako bilakaeraren punturik garrantzitsuenak azaltzen dituzten araudi bi, 1103/97koa eta 974/98koa, argitaratu ditu Europako Batzordeak. Biribildua, legezko baliokidetzak, “debekurik ez, obligaziorik ez” printzipioa, e.a. dira puntu horiek. Hala berean, ondo jarduteko gomendioak zabaldu

ditu: komisiok, prezioak bi moduetan azaltzeari eta informazioa emateari buruzkoak. Gomendio horietako batzuk jasota daude Euroaren Sarreraren Legean.

Autonomia Administrazioak, bere aldetik, oinarrizko eginkizuna du gizarteari eurora aldatzen laguntzeko horretan; hori diote Europako Batzordearen txostenek eta gomendioek. Eginkizun hori zenbait eremutan betetzeko da:

• Barne-prestaketa. Bi alditan banatuko da:

– Administrazioa Egokitzeko Plan Zuzendaria. Plan honen helburua Jaurlaritzako sail guztiei eurora ohitzeko prestakuntza ematea da, aldaketa horrek eragin zuzena izango baitu zenbait arlotan: finantza eta zorretakoan, kontularitzakoan, aurrekontukoan, zerga eta kontratazioan, eta, legeari dagokionez, antolamendu- eta jardunbide-gaiei buruzkoan eta informazio-sistemekin lotura dutenekoan.

– Barne prestakuntzako plana. Plan hau Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta udaletako funtzionarioen prestakuntzarako da. HAEEko Prestakuntza Zerbitzua eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Programazio Zuzendaritza ari dira egituratzen eta ikuskatzen. Herri-langileen prestakuntzak oso garrantzi handia du: izan ere, oro har, jendearen informatzaile eta prestatzaile dira batetik, eta, bestetik beren eguneroko lanean aritzeko gai izan behar dute eurora heltzeko ibili beharreko bidean. Horiek horrela, bi prestakuntza-mota ditugu:

1. Prestakuntza orokorra. Herri-langile guztientzako. Helburua: ezagutu dezatela zer den euroa eta zer-nolako ondorioak ekarriko dizkien herritarrei. Hiru ordubeteko informazio-berbaldiak

dira. Azaroan ekin zaie Jaurlaritzan eta aldundietan. Erakunde horietan amaitutakoan, udaletako langileen txanda izango da. Herri-langile guztiek prestakuntza bera izan dezatela, hori da nahi dena; horretarako, irakasle berak arituko dira erakunde guztietan eta gaiak ere berak izango dira.

2. Berariazko prestakuntza. Euroaren sarre-raren eragina izango duten arloetako langileentzako. Laneko arlo bakoitzari berariaz egokitutako prestakuntza izango da. Kontabilitatea, aurrekontua, kontratazioa, zergak, finantzak eta zorrak, legeari dagozkion gaiak, antolamendukoak edo informazio-sistemetakoa. 1999ko urtarilean hasiko dira.

• Kanpora zuzendutako prestaketa. Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek, laurak batera, Euroaren Berri Emateko Euskal

Plana zabaltzen ari dira. Maiatzean ekin zioten, Eusko Jaurlaritzaren Internet-sarean euroari tarte bat antolatu ziotenean eta telebistan iragarki batzuk atera zirenean. Plan hau igaroaldi osoan joango da garatzen herritarra egoera berrira ohitu dadin. Arlo askotan jardungo da eta, batez ere, Batzordeak gomendatutako honetariko jendearentzat: kontsumitzaileentzat –horien artean gazteek eta adindunek lehentasuna izango dute–, eta industria txiki eta merkataritzakoentzat.

2002ko uztailaren  
1az geroztik, euroa  
izango da legezko  
erabilerako diru  
bakarra

Lourdes Llorens

Eusko Jaurlaritzako Programazio Zuzendaritza



### Curs de correcció de textos orals i escrits. Pràctiques autocorrectives

Costa Carreras, J.; Nogué Serrano, N.; Duran Padrós, E.; Fargas Valero, F.X.  
 Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura, Direcció General de Política Lingüística  
 Eumo editorial  
 Barcelona, 1997  
 302 or.

Testu bat zuzentzea testu hori gramatika araei eta dagokion komunikazio egoerari egokitzea da. Izenburuari begira, baten batek pentsa lezake liburu hau katalanezko testuak zuzentzen aritzen direnentzat prestatuta dagoela; eta, neurri handi batean hori horrela bada ere, baliagarria izan daiteke beste edozein hizkuntzatan idatzitako testuak zuzentzen dituztenentzat ere. Izenburuak berak adierazten duenez, liburuak bi zati nagusi ditu: ahozko testuen zuzenketa eta idatzizko testuena, eta horien barruan, testuak nola zuzendu eta zuzenketa bakoitzerako zein zeinu erabili behar den azaltzen digute egileek.

### Poliziarako hiztegia / Diccionario para la policía

Segura, J.  
 Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
 Vitoria-Gasteiz, 1998  
 705 or.

Lan mardula, liburu honetan biltzen dena. Mardula, horrelako hiztegi batek zehaztasuna eskatzen duelako, eta polizi lanak gai anitzekin lotura duenez, zabala delako oso. Polizi lanetan zehaztasuna garrantzitsua dela-eta, lan honetan egoki jasotzen dira zehaztasun horrek eskatzen dituen bereizketa guztiak, esate baterako, *ezpain* terminoak hemeretzi azpisarrera ditu; gauza bera *begi* terminoarekin. Dударik ez, oso baliagarria izango zaie euskaraz lan egin nahi duten polizia guztiei, bai ertzain, bai udaltzain, ... eta baita polizi lanarekin nolabaiteko lotura duten administrazioako langile askori ere: justizia administrazioetako funtzionarioei, itzultzaileei...

### Arrantza hiztegia

UZEI  
 Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
 Vitoria-Gasteiz, 1998  
 292 or.

Arrantzak tradizio handia izan du Euskal Herrian, eta gainera, lanbide hori euskarari lotuta izan da beti, bertako arrantzaleek geure hizkuntza erabili izan dutelako lanean. Hiztegi honetan arrantzako hainbat termino jasotzen dira, honako eremuotan banaturik: arrantza-espezieen izenak, arrantza-espezieen alderdi biologikoa, arrantzako tresnak eta arrantza-motak, arrantza-ontziak, arrantza-espezieen industrializazioa, eta termino administrazioak. Terminoen sarrerei dagokienez, lehenik, euskarazko hiztegia eta erdaretako baliokideak biltzen dira; eta gero, espainiera-euskara, frantsesa-euskara, eta latina-euskara bikoteak. Euskarazkoetan, euskalkien eta tokian tokiko hizkeren aberastasuna agerian utzi nahian, izen bat baino gehiago ematen da espezie askoren kasuan.

### Ingurugiro hiztegi entziklopedikoa

Elhuyar Kultur Elkartea  
 Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
 Vitoria-Gasteiz, 1998  
 448 or.

Ingurugiroari buruzko gaiak gero eta leku handiagoa hartu dute gure artean: aditu asko ari dira sakontzen arlo horretan, eskolatan ikasgai garrantzitsua bihurtu da, eta prentsan ere gero eta orri gehiago betetzen ditu. Orain arte ingurugiroaren gaineko terminologia ez zegoen inon jasota, eta hutsune hori betetzera dator liburu hau. Era berean, esparru honetako lehen hiztegia izanik, bidea urratu nahi du geroago termino berriak eransteko, egon daitezkeen hutsuneak betetzeko, edo termino bat baino gehiago dagoenean horietako bat lehenesteko. Hiztegi entziklopedikoa denez, terminoen definizioak biltzen dira, eta baita gaiari buruzko artikulua ere. Bukatzeko, jakin ezazue terminoen sarrerak ingelesez, gazteleraz eta frantsesez datozela.

### Senez, (20. zenb.)

Eizie  
 Donostia, 1998  
 109 or.

Denbora luzean *Senez* aldizkaria oinarrizko erreferentzia izan da Euskal Herriko itzultzaile, zuzentzaile, eta interpretarientzat. Bada, hogeigarren zenbaki honetan, Koldo Bigurik agur esaten digu. Berak zuzendu du bederatzirentzat aldizkaria, eta hemendik aurrera, Gotzon Egiaren ardura izango da argitalpen hau gobernatzea. Ziur gaude lehen bezain arrakastatsu jarraituko duela eta gai hauetan interesa dutenek aldizkari hau eskuratuko dutela kalitatezko artikulua sendoak irakurtzeko.



## Kontuz bulegariekin

Barrena. Ez da abizen zaila. Esan, erraz esaten da, *Ba-rre-na*, Barrena. Idazten ere ez da zaila, *b* eta *a* ba, *erre* eta *e erre*, *ene* eta *a na*, *Ba-rre-na*, Barrena, horra. Hala ere, soldadutzako paperetan *Barreras* dut. Nik han aurkeztutako paperetan Barrena jartzen zuen denetan, neuk esan Barrena esan dut beti, eta zer? Eta Barreras nintzela, Barreras zirela nire anai-arrebak, Barreras zirela gure ama eta amaren anai-arrebak eta amaren aldeko lehengusu-lehengusinak, Barreras zirela gure amona, amonaren ama eta anai-arrebak... Harrezkero bada Barreras-etan gure etxean!

Ez omen da harriztekoa soldadutzan horrelakoak gertatzea, hurrunez mundua dela-eta, urruneko era guztietan gainera, bai pentsamoduan bai jokoeran, kulturen, hizkuntzan, harremanetan; egin ere tokitan egiten dela eta horrelako esplikazioak.

Asko ez dela kotxea erosi nuen. Eskerrak irakurri nituen beteta eman zizkidaten paperak! Badakizue zer jakin nuen? *Bárcena* nintzela. Nor nor den jakiteak eragiten duen poza sumatzen hasi besterik ez eta barrua halako kezka edo egonezina hartu ninduen. "Hau ere badiagu ba!"-nion neure artean: "Nola azaldu nik orain etxean Barrena-Barreras guztiei benetan eta izatez *Bárcena* garena?" Ez al da kezkatzekoa? Hemen nazue kontu hori etxeko inori aipatzeko ere kemenik gabe.


Kontuz bulegariekin! Administrazioekin eta bestelakoekin, edozein motatakoekin!

Horko zazpiehun eta berrogeita zazpi milioi pezetagatik haserretu egingo ote gara bada?

Hementxe daukat orain dela bosten bat urte Euskadiko bi erakunde nagusi-nagusiren artean izenpetutako hitzarmen bat. Gaztelaniaz dago nik dudan testua, baina aldizkari hau irakurtzen dugun guztiok derrigorrez eta hobe beharrez benetako elebidunak garenez, bere hartan egingo dut aipamena.

Hona zer dion hitzarmeneko *acuerdan*-etako batean: *...la totalidad de las cantidades inicialmente previstas en el Convenio Marco y que asciende a la cantidad total de QUINCE MIL MILLONES SETECIENTAS CUARENTA Y OCHO MIL PESETAS (15.748.000.000.-PTAS) para los...*

Ez da alde makala bi kopuruen artekoa! Dixkuirua edo!




Zuen istorioen zain gauzkazue  
ondorengo helbideetan:  
*Administrazioa euskaraz*  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea  
Eusko Jaurlaritza  
Wellingtongo dukearen kalea 2  
01010 Vitoria-Gasteiz

Faxa: 945 -187603

@ Posta elektronikoa:  
webivap@ivap.es

# A b a r a s k a

Erantzun guztiak sei letrakoak dira eta zenbakiaren inguruan kokatu behar dira. Erantzun bakoitzaren lehen letra zenbakiaren gainean doa beti. Gogoan hartu hitzak ordu orratzen arabera bideratu behar direla.




LUMA

1. Ondasun higiezin. 2. Eginarazi. 3. Kasko. 4. Zintzo. 5. Ipar., barberu, zirujau. 6. Galtzapena. 7. Joko-lehiaketa fisikoa. 8. Hiri inguruko auzo. 9. Gartsua. 10. Baneuzka. 11. Seigarren hilabetea. 12. Oilarren emeak. 13. Hankaz gora jarri. 14. Dizipulu, apostolu. 15. Izu-dardarak. 16. Bizk., baratzak.

## Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/27 71 11
- EKB: 943/46 66 50
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/27 82 69
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/681 66 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 07-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/41 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/18 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailordetza: 945/18 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/18 76 56. Fax: 945/18 76 03
- Kultura Saila: 945/18 94 64
- Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 83
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54
- UZEI: 943/47 33 77

## H i e r o g l i f i k o a



LUMA

Non zeuden orriak?

## S o l u z i o a k

ERANTZUNA: Li-buruen artean  
H i e r o g l i f i k o a

16. Ortuak  
13. Iraulta. 14. Ikasle. 15. Ikarak.  
10. Bantua. 11. Ekaina. 12. Ollotak.  
7. Kiroia. 8. Aldin. 9. Sutsua.  
4. Prestu. 5. Barber. 6. Galera.  
1. Ombre. 2. Eragin. 3. Kaskar.

A b a r a s k a

# Ortik eta emendik

Justo Maria Mokoroa Mujika



Herri euskarako esamolde bilduma  
CD-ROMean

# HAEEK ikastaro hauek jarriko ditu martxan otsailetik aurtorera:



- Nola idatzi...
  - Aktak (8 ordu)
  - Erabakiak (8 ordu)
  - Txostenak (8 ordu)
- Argidazten: nola lortu kalitatezko komunikazioa idazkietan (12 ordu)

Argibide gehiagorako jar zaitez harremanetan  
HAEEKo Prestakuntza Zerbitzuarekin



Telefonoa: 945-187620

Posta elektronikoa: [prestakuntza@ivap.es](mailto:prestakuntza@ivap.es)